



Txiruliruka

OLERKIAK

Loidi'tar Faben

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onandia eta abar).
 - 2.º **NEURRIZTIA**
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
 - 3.º **SUGE GORRI**
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
 - 4.º **ESPALAK**
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
 - 5.º **AITONAREN IPUIAK**
(Ramon Murua).
 - 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**
(Anastasio Albisu Ayerdi).
 - 7.º **1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE**
(Larrakoetxea, Bedita).
 - 8.º **LANDARE-JAKINTZA**
(Larrañaga, Gillermo).
 - 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**
(A. Albisu Ayerdi).
 - 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**
(Anastasio Arrinda Albisu).
 - 11.º **2 - KOMEDIAK**
 - 12.º **3 - DRAMAK**
 - 13.º **4 - DRAMAK**
 - 14.º **5 - TRAJEDIAK**
 - 15.º **6 - TRAJEDIAK**
- } SHAKESPEARE
- 16.º **1.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"**
Método para aprender y enseñar el idioma vasco.
 - 17.º **2.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"**
Modismos - Vocabularios - Clave de temas.
 - 18.º **TXIRULIRUKA**
(Loidi'tar Paben).
 - 19.º **I.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
 - 20.º **II.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
 - 21.º **III.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
(Colaboraciones).

TXIRULIRUKA
OLERKIAK

Txiruliruka

OLERKIAK

Loidi Peña'tar Faben



KARDABERAZ BILDUMA - 18

○ A R R A :

Olerki-Bilduma ontan, zenbait irar-utsune txit egoki betetzeko erabili ditugun edergaillu-marrezkitxoak, Kerexeta'tar Jaime apaiz jaun eta adiskide begikoari zor dizkiogu.

Bijoazkio emen gure eskerrik beroenak.
Eskerrikasko!

K. B.

Autor: Loidi'tar Paben

Edita: Juan José Garmendia - Librería Técnica de Difusión - Tolosa

Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria

Depósito Legal VI 186 - 1977

I. S. B. N. 84-400-2625-0



Loidi'tar Gaben

Añorga'n jaioa, 1909-XII-22.

Bost urte edo zituala, aita il ondoren, Orio'ra bizitzez aldatu.

Andoain, Saturraran eta Gasteiz'en apaizgo-ikasketak.

1935'an. Mujika'tar Mateo, Gasteiz'ko gotzai zalarik, apaizgoa burutu.

Ta urte berean, Añorga'n, meza berria eman, opa-izlari Aitzol zalarik.

Ta bereala. Musitu'ra apaiz, Martin Lekuona'ren lanari jarraipena emanaz.

Araba euskeratze arren...

1936, Capellan de Regulares.

1939, Guda ondoren, Bizkai'ko Karrantza ballarako Aldeacueva y Sierra
erri koxkorretan apaiz.

1945=XI-15. Igeldo'ra apaiz.

Exkeintza

Bi maisu izan ditut
argi eraginkor,
biak emana dute
arnas eta odol,
aberri-miñez tinko,
Euskera'ren ajol.
Orain, txiruliruka,
eskartzera nator
egin dezuten lana,
Lekuona ta Aitzol.

AURREITZ

Ez nuke lotsarazi nai, nere konparantza onekin, gure lagun Loidi olerkaria. Txori kantari batekin nai nuke konpara: erresiñularekin, urretxindorrarekin.

Gure olerkari guziak ez bait dira erresiñul.

Ba dira, turut-ots bildurgarria dariotenak. Gure Paben ez da turalari; soñu ezti, soñu apain, soñu jostalaria dario beti bere liratik.

Ba dira, beti norbaitekin asarre diarduten olerkari erretxiñak. Gure Loidi'k ez du iñor etsairik munduan —Ondarribia'ko estropa-zalaren bat zerbaitetan izan ezik—. Jaunak munduan egindako oro, adiskide du. Ez du etsairik.

Ba dira, beti lantu jo diardutenak ere. Gure Loidi'k mundua erroxa-kolore ikusten du —Euskeraren etorkizuna izan ezik, eta benetan izan ere—.

Gure Paben'en olerki-jardurioak, erresiñul poxarena dirudi: jardurio ezti, apain, jostallu, dantzari: umoretzar-aldian umore-ongarri irakurtzeko olerkariaren erregali. Eta grazi ori ez bait du oraingoa. Guk beti ola ozagutu degu, Orio'ko txoria, Gasteiz'ko egun gogoangarrietatik eta orain arte. Eta egoera ta sentiera ori ber-ori ageri du, gaur argitaltzen digun olerki-liburutxoan ere.

* * *

Liburu apaña, olerki apañez enpu-egiña.


Zerorrek ikus, irakurtzalle.

Nik, besteak beste, gauzatxo bat ikusieraziko dizut olerki oietan: bertsoaren txukuntasuna. Mami ere bai: mami poxa —leen ere esan det—; bañan batez ere, iñun gutxitan ikusten dan bezelako txukuntasuna bertsoaren soñean, azalean. Ikus, batik-bat, bertsoen puntu-rima, Xenpelar'en iduriko, zeatz landua; bañan puntu errex, oparo, ugari dariona. Atsegin bait da, noiz-nai, olerki oietako edozein bat eskuan artu, eta xalo-xalo, pake-pakean irakurtzen goxatzea.

Esan bearrik ez, olerki oietan, sarituak bat baño geiago ba dituala; guretzat —eta edozeñentzat— sentimen eta artez onena, "Orio' ko umezurtza", danotan osatuena —Aitzol batek maite zuana—; bañan beste guziak ere osotoro orren antz-antzeko senide txairu bait dira.

Zuk ikusi, irakurtzalle.

LEKUONA zarrara.



Orietarrak



ORIO'KO UMEZURTZA

(*Zarautz'en V' garren Eusko-Olerti Egunean - 1934 - Eusko Poemaetan
lenengo saria irabazitakoa*)

Kayo-saill aundik,
utzirik ainbat ur-jolas,
itxas-aunditik
igesi doaz
bizi ta kurrixka joaz.

Mendiak zuri,
asarre beltz itxasoa;
ekaitz-urduri,
naspil giroa;
belearekin kaioa...

Min du auzoak
odei-murru beltz kizkurra;
berun-mordoak
alda makurra,
zuri-arinki elurra...

Erio dabil...
Len aritz eze sendoa
orain arakil.
Zurrunbilloa
orbela biltzen dijoa.

Gau illuna da.
Erria lotan dalarik,
illen dangada,
kezka ereñik,
ari da joal zarretik...

Nor il da? —galde—
atsoak leio-zulotik...;
sei arrantzale
makur, burutsik,
kalean gora ixilik...

Andre gazteak
ba leki gertakizuna..!
Arrantzaleak
so alarguna...,
galdu zaio ta laguna.

Gau illuna da...

Ama-semeak
irauli dira kaiara.
Ekaitz-aizeak,
galdetu ala,
irriz darantzu il dala.

Erio dabil...

ETXEAN

Aztarrenik ez...;
errian min-zurrunbilla...
Biotzak iges
senide billa...
—Itxaropena erdi-illa—.

Belaunikatuz,
otoi agurtza etxean...;
biotz-izutuz,
semeak negar
amaren aldamenean...

Lotara dedin,
aitari musu eman nai...,
baiña gaur ezin...
Samiñez ernai,
gau ontan oia latza bai..!

Amak, zotinka,
aldean otoi gogotik...
—Aitatxo...! —deika,
laztan bearrik,
zurtza jeiki da oetik.

—Ba dator aita...;
tira, semetxo, lo egin...!
goizegi baita...—
Iñolaz ezin...;
zurtzak loa ez atsegin...

Malkoz iturri,
ama-begiak negarrez...;
gogo-biurri,
ezpaiñak parrez
semea poztu-bearrez.

Aundia baitu
kezkak damaion ikara...;
ezin gelditu
zaion dardaraz
erne dijoa lotara.

Enbatak txistuz
ari du gogait-leloa...
Eguna piztuz,
beltz itxaso...
—Aitak noiz arte du loa...?

Amak goizero
meza du barne-intzira...
jartzen da gero
itxas aundira
goiko leiotik begira...

GERO...

Ontzia galdu
zanetik bigarren gaua...,
ta, ai, ez azaldu...!
Bai samin dala
zurtz-alargunen negarra...!

—Eup...!— itxas-deia
aldameneko atean...;
samin-erdoia
une berean
zartaka biotz-muiñean...

Egunak luza,
aste osoak igaro,
ta artean zurtza
laztan-itxaro,
atsekabetan luzaro...

Kardabaz dabil;
amets oro du sinistu...;
egun argiz il,
gauero piztu...;
erne-aizeak min txistu...

GEROAGO...

Erreka pir-pir
oian-itzalez gain-bera...;
zelaian kir-kir...
Adiña curreira...;
oroipen beltzak atzera...

Txorien otsa
luma-berritan egari...!
Zurtzaren poza,
leen lan-sari
ekarriz bere amari...!

ZANTZU TXAR...

Afrikan guda...
alargun- seme bakarra
arakotu da.
Ala bearra
lege-austen bai azkarra...!

AGUR...

Tolarea blai, ardatza trinko,
gorri-gorri pats-ondarra,
dariola aizken-negarra;
mendian bera kurixkaz dator
jauzika gurdi-sagarra...

Teillape-maizter enara alaiak
aldendu ziran urruna...;
gaurtik kabian utsuna...
Atzerriratu bearrean da
etxeko seme kuttuna...

Amak diotza: —Zaitu arduraz
Fedea eta Euskera;
zintzo izango al zera...?
—Ez estu, ama; emen naiz berriz
gari berritan etxera.

.....

TRENA

GELTOKIAN

Emen dek
su ta gar
mamu beltz
arnaska;
abi-austen
indarka,
toki neri...!

dearka;
dama
burdin,
arro,
arin,
zai daudenen
nai-aurka...

Biotz-mami
zaurituan
txistu zorrotz
bultziak...
Fafa-fafa...!
ba ziak,
uxaz baztar
guziak...
Aizken-agur...,
malko min bi
amatxoren
begiak...

—Agur, Orioi!!
zotinka dio.
Biotz-osiñak
malko dario,
ta aizken-pozkida
lausotzen dio.
Agur, Orioi...!

BIDEAN...

Bein gora,
bein bera
bultzia
urduri...;
batera,
bestera
subea
dirudi...

Ibaiak,
zelaiak
atzean
bipil...;
mendiak,
egiak
leizean
amil...

Aizkorri
etorri
danean
urbil,
zatorra,
pizkorra
lurpean
murgil...

.....
Kideko berreun gudari
miñak aztutzen kantari...

Amaren zori,
oroi-laiñotan igari...l

.....
Zulotik
Irtan,
txistu bat
eten,
ta aurrera
lerden
piztia...
Arabian
zean,
su eta
dean,
biurtuz
kean
guzia...

.....
Gasteiz'en oldar batez
arnas artu, ta antziak...!
Agur, euskal-mendiak...!
Ordezkari
aspergarri
kastilla-lur gorriak...

.....
OLDOZTUN...

Illunabar oroigarri...
sargori, aize epela...;
eresbatun gogaikarri
txori orde z igela...
Bitartean illargiak
irri-parra duela,
jasotzen du ama-semeen
zori bikoitz ergela.

ZORI TXARRA

BIR-ZURTZ...

Aizken-leiñuru
gorrixka osertz-kolkoan...
Eliz-inguru,
zori gaiztoan,
bele-sail beltza zijoan,
zantzu txar baten erroan...

.....
Tiroz elbarri,
jausi da zurtza guduan...
Amak igarri...;
bere barruan
sastada nabaitu zuan,
telepatien mezuan.

Begi ederrak
zurtzari lertu musuan...
Beingo okerrak,
itxumustuan,
ama ito du orduan
bere sukalde-txokuan.

.....

ZURTZAREN LELO...

Itxu nakarte,
bir-zurtz gudatik etxera...
Orain ill arte
—zori minbera—
biziko ba naiz, eskera...

Zorigaiztoan
urrundu nitzan etxetik...!
Laztan-aroon
maite bear nik,
baña nora jo, ez dakit...!

Ixillak ari
du orru latza gau t'egun.
Ama...! deiari
kinkik ez ifun...
"Txuri" bakarrik det lagun.

.....

Kabi goxoan
nintzan jaioa;
adimen-loak
uztean,
sartu ninduten
—ene ta nola...!—
negar-kaiola
beltzean.

Eztai ederrak
auzoan sarri...;
oien egarri
ni ziñez...;
eta bein ere
laztan-garaian
neretzat maian
pozik ez...

.....

Itxas-ertzean
goizero oi det nik eskea.
Oroi batean,
ezin asean,
igarotzen det bidea.

Aita ta amari
deika det biotz goibela;
murgil-igari,
arra bezela,
urratuz itxas-sabela.

Arkaitz-gaiñean
ill-arria det nik jaso...
—Ik, bota artean,
diok eraso.
Gorroto aut nik, itxaso...!

.....

Nola da zintzil
belar-punttan ur-iztilla...?
Alatsu nabil,
bizirik illa...
—Erio, noiz auket billa...!

.....

BETIKO PAKEA


Goiz-aldea da;
elurra..., griñak ixilik...
Illen dangada,
itxuagatik,
mintzo da joal zarretik.

Biotz laztana
iltegian da irauli

amarengana.
Ittunki "Txuri"
aldamenean zaunkari...

Soin izoztua
amaren gurutz-lepoan
besarkatua...

Irri aboan,
biozgeturik zegoan...



DELAKO ERRI AU...

Izadiaren kolkotik denok
berdin jaiok ez gera,
giza-taldeak ageri dute
nork bere bizi-tankera.
Oietako bat Orio da ta,
jarraituz bere joera,
itxas-lanetan eratxi gabe
darama beti bandera.

Berezko ditu sena ta griña,
izanak eta izango,
ala ezikan nortasunean
ez luke jator iraungo.
Errixka gogor setatsu onek
dituan beso ta zango,
bere biziko joaldietan
kementsu digu esango.

Etxe-mordoak eliz-inguru
estutzen dute Orio,
ogi-bidean gora ta bera
ibaiak lagun dakio.
Bere gizonak itxas-lanetan
oitu dirala merio,
mariñel-griña nagusi eta,
gezal-usaia dario.

Izpazter onek erakutsi du
guzirako gai duana,
bizi-bearrak eragin eta
itxas-burrukak emana.
Oriotarrak ondo tajutuz
beso, gerri ta belaua,
txapelarekin kutun bezela
erabili du arrauna.

Aldi batean arrantza dala,
bestean itxas-gudari...
Gordean ixil egonagatik,
zantzu bat al da nabari...?
pixti-zulotik jauzita dakar
arrapatua udari.
Oriotarra izanda beti
ur-legorreko azari.

Bakallau eta bale-arrantzan
Etxaide jun zan aurrena,
Kristobal Kolon baiño lenago,
Ameriketan barrena.
Orio'tar au bikaiña zala,
ba da esaten duena:
Terranova'ko bazter aietan
Etxaide-Portu izena.



ITXAS-BURRUKA

"TARRABILLON"

Kantauria goibel da...
 Erronka darion
 zantzu txarrak ez dakar
 iñondik berrion...
 Orra Sabelgorriak
 jaupaka zer dion:
 —Zabala dut ur gaiña,
 mugarik ez iñon;
 denak mendeko ditut...
 Ni naiz Tarrabillon...

Pipa-dun txapelaundi,
 gerrian ezpata...,
 jaun-da-jabe or dabil
 euskaldun pirata.
 Arroskoaren lege
 indarra dala ta,
 joaldian berekin
 darama enbata.
 Jaun-da-jabe or dabil
 euskaldun pirata...

—Zabala dut ur-gaiña,
 mugarik ez iñon;
 denak mendeko ditut...
 Ni naiz Tarrabillon.

Bere ontziak dute
 lapur-egitura.
 Gaitegun dabillela,
 jatorik aingura,
 etsaia jarri ditu
 igesi portura,
 lau aizetan odolduz
 itxasoko ura.
 Bizia maite duna
 etzaio ingura.

—Zabala dut ur-gaiña,
 mugarik ez iñon...;
 denak mendeko ditut...
 Ni naiz Tarrabillon.

Zeletariak jo du
 biziki turuta:
 Frantzesak dakarrela
 Orio-ko ruta...!
 Aur-emazteki denak
 lenbaitlen izkuta...!
 Oial-betean eta
 tximistak artuta,
 Frantzesak dakarrela
 Orio-ko ruta...!!

Peru Bergante da bat,
 Iturain bestea,
 oriotarrak duten
 kapitana pareta.
 Urez eta legorrez
 bildu da jendea,
 barran, ill edo bizi,
 jotzeko pelea.
 Zoritxarra salatzen
 Din...! Dan...! joalea.

Sarrera katez itxi,
 zear milla soka...;
 an tratatzen ez danak
 joko du arroka...,
 katapultan arriak,
 su-tunpa orroka...
 Batean brankaz eta
 bestean alboka,
 ur-da-legorrez egin
 diote borroka.

Ontzi kokatuari
 eraso albora...,
 dantzatuaz ezpata,
 aribatsu aizkora;
 saietsa zulatuaz,
 tumpaka polbora...
 Korsario bat sutan
 dijoa ondora,
 garrak eragin dio
 oialetan gora...

Igesian okerka
 doa bergantiña,
 Gaskoin-Itxasoaren
 ontzi erregiña,
 itxas-burrukarako
 bereizki egiña.
 Geroztik nabari da
 mendekari-griña;
 Baionakoak ezin
 aztu dute miña...

Oarra: Orio'n gaur oraindik, zalapartan
 dabilenari —Au Tarrabillon...!— esaten
 zaio.

ARRANTZA

Itxasoa da beti
 lurrari musuka,
 ta lurra ogi-eske
 laztanaren truka...
 Alkar-maiteak dira
 biak, ezin uka,
 aldiz egiñagatik
 asarre burruka.

Ainbat arrantzalea
 nagi kalez-kale...
 Bere otarrarekin,
 beartsu-maitale;
 dunean ase ditu
 amaika eskale.

Oriotarren kezka
 miñena da Barra;
 itxasorako duten
 ur-bide bakarra,
 ogi-billa joateko,
 igaro bearra,
 eriotza dutela
 zeletari zarra...

SAREKETAN

Oñez motela bait da
 antzara, ur-zale...

Udaberri-goiz-aldean,
 arraia gose danean
 kostaren aldamenean,
 ontzi-taldeak leiatzen dira
 etxetik urbil lanean;
 gezal-usaia kalean,
 dirutza esku-artean,
 ogiak ez du kaltean.

Or dabil ontzi goiztarra,
 begira dula izarra,
 miatzen urez ondarra...
 Murgil-igari jauzika dager
 izurdearen bizkarra...
 —Emen dek arrai-oldarra,
 denoren saia-bearra...
 Osa gizonen indarra...!!

Arria bota ondora...,
 begia zorrotz albora...,
 piztu dek arrai-bolbora...!
 Sareketako garaia da ta,
 erria...! dana kanpora...!
 Arraia sare-kolkora...,
 sokatik eldu ta gora...
 Bikaña degu ardora...!!

Kaian ari du txintxiña;
 jendeak egon-eziña...;
 oraintxe dator sardiña...
 Sal-erosketan ixkanbilla ta
 atsoak irri-musiña...;
 aidean otar-ekiña,
 bete ta ustu ariña...
 Beti onela bagiña...!!

Ustutzeakin batera
 dijoaz parrastatzera,
 itxas-gizonen legera.
 Lemari eldu ta, cupa mutillak,
 bidean janaz, ostera
 goazemak ipar-aldera,
 arrai-saillari eustera,
 osatu arte kostera...!

AMUKETAN

Arrai-giro da,
 Negu-partean
 urtu bait ziran txanponak...

Sare-mordoak
 soiñean bilduz,
 errenkan datoz gizonak,
 luzaro geldi egonak.

Ontziak leian
 ikuska doaz
 ur-azal eta sakonak.
 Kaia-gaiñetik,
 pipa erreaz,
 begira daude aitonak.

Erri-biotzak
 bedeinkatzen du
 ontzi bizien urruna;
 barra-buruan
 aitaren... eta
 arin dijuaz urruna...;
 ara orduko illuna...

Eskurik-esku
 beitak eratzen,
 amuak eta beruna...;
 begiak erne,
 nun azalduko
 egaluxeak, atuna...

—Erne, mutilla,
 eztiborretik
 zebillek arrai-taldea,
 ur-axalean
 zalapartaka,
 ausarta bezin gosea
 zetorrek sarda luzea...

Beita bizia
 bota-orduko
 amuan egaluxea...

Eten gabeko
 aldi latza da
 amuketako nekea.
 Egona ez da obea.

BALE-ARRANTZA

Ogeigarren gizaldi
asi-asieran
baleak aizkena du
Orio-bazterran.
Arraunlariak antxe,
gizaundien eran,
gudu latza jo zuten
Isidro-bezperan.

.....
Uraunditik igesi
dator pottorroa,
nabaitu dualako
bale-marroa...
Eliz-kanpaiak laizter
bildu du auzoa,
asarreak aztuta
bateratzekoa;
alkate-bandoa,
itxas-gudakoa;
patrioiak santzoa:
Osa trañeroa...!
Ontzi-talde onena
biltzen dijoa...

Lema-zai dira Loidi
eta Manterola,
Atxaga, Uranga ta
buru Olaizola.
Ba zan aien artean
arrantza-eskola,
itxas-sena, indarra,
gatza ta odola.

Bost txalopa zaizkio
inguruan jarri;
patrioiak abi-era
mintzo alkarri;

tostarteko gizonak,
eraman-ekarri,
daragizkite milla
burni ta lokarri.
Baleak igarri...
ta juaz aldarri,
ur-pean da sarri;
arpoidunak larri,
egokiera zaitzen
buru-belarri.

Zabal-zabal ibilki,
nagusi ta lirain,
ur-zirrizta bota du
baleak danen gain...
Loidi aldera zaio,
borrokatzeko lain,
ta... antziak azpira... To...!
Arrapa zak orain...!

Azalduaz berriro,
dator ixil-ixil,
inguruan usatka
ontzien urbil...
Ango arraun-karraska,
oyu ta ixkanbil...!
Arpoiak zirti-zarta...,
baleari makil...
Betondoa zintzil,
burua du zarpil;
ala ta ezin il...;
aisa jo du murgil.
Pisti tzarra sokatik
ur-pean dabil.

Aize ta euriakin
nasi da ekaitza...
Ur-ausian dabilki
mamuk isatsa;

txalopak arriskuan
jo-ez-jo arkaitza...
Zurrunbil artan nola
burutu garaitza...?

Burniz erasotua,
zaigu amorratu...
Zori estua dala,
ezin ukatu.
Batzuek abantean,
besteak ziyatu...;
Olazola geiegi
zazio alderatu;
arraunak trabatu,
toletak puskatu...;
pisti ta olatu,
bi madarikatu,
lana galerazteko
ziran alkartu.

Isatsa dantzatuz
zigorra bezela,
bati puskatu dio
estibor-karela;
andik amildu da ta,
jaso mariñela...
baleak irentsiko
bait zuan bestela.

Arnas-orruka berriz,
ura zurrutzari,
asarre dator, miña
dula nabari...
An dira naspilla ta
karraxi ugari;
txalopak zuzenduaz,
patroiak izlari:
—Erne, Miel Mari,

brankako azari...!
Eldu arpoiari,
ekin baleari...!
Or zetorrek mamua
borrokalari...!

Abere sakaildua
mende da uretan;
sei arpoi daramazki
bizkar-egaletan...
Zearka nagi eta,
lotua soketan,
ao-zabalka dabil
aizken-arnasetan...

Amaitu da borroka,
bulartsu egiña,
odol-gorritzeraiño
itxas urdiña.
Baleak bizkarrean
dakar ikurriña;
irrintziak dirudi
zoratuen griña;
kofradi-txintxiña
dindanki ariña;
plazan danboliña,
gutziz atsegiña...
Erria bildu da, len
batu-eziña.

Aren abo-sapatia
astuna zan baiña,
pirrillaz zabaldurik
giza-bete aiña,
bi arakin barrura
sartu alajaiña,
ta aizkorarekin moztu
diote mingaiña.

Orra milla ta seireun
arroa okela,
berreun inguru mingain
eta gibela;
lareundik gora berriz
koipe dan lumera,
zazpi milla erreal
sal-neurri dutela;
erostun-akera
zalarik ostera,
bizarrak saltzera

bearko atera...
Bi milla errealden
emanak gera.

Amasei metro luze,
gerriz aundi dala,
lema dotorea du
bere isats-pala,
itxas-jaun ibiltzeko
lau metro zabala.
Etzan ez ur-gaiñean
abere makala.

ARRAUNLARIAK

ASIERA

Ibaian gora datoz
bat, bi, iru txalopa...;
arrai biziarekin,
dakarten estropa...!
Ez diote alkarri
txarkeri bat opa,
al dunak bai, ordea
erakutsi popa.

Orra ontzi beltxean
zirak ori-ori...;
jo ta jo arraunean,
naiz bertan erori,
garaiz arrapatzeko
salmentako zori...
Or griñatu zan gure
arraun-jolas ori.
Eten gabe bait datoz
itxas-olatuak...
Aien antzeko dira,

ezin geldituak,
Oriok eman ditun
arraun-astinduak,
atzo gaur eta beti
nunci txalotuak.

APARTEKOA

ORIO'KO AUNDIA

Makazaga'tar
Joxe Antonio
zan Orio-ko Aundia;
arraun-lanean
zailduta zeuzkan
besoak eta gerria,
itxasoari
kentzen bait zion
eguneroko ogia.
Aren indarrak
ikaratu zun
Kantauri-bazter guzia.

Etsaiak oro
 porrokatuta
 arraunean zan nausitu.
 itxas-olatu
 biziak ere
 ezin zioten jarraitu...
 Aparteko zan
 arraunlari au
 gizonak nola garaitu...?
 Batel-estropak
 len ugari ta
 orduan ziran amaitu.

Erraldoi ura
 menderatzeko
 oartu bait zan jendea,
 bearko zala
 bi edo iru
 gizonen indar trebea...
 Billatu zuten
 burrukarako
 bear zan lagun parea:
 Donostiako
 Erdozia ta
 Pasai'ko Artzak bestea.

Bixente Loidi'k
 adarra jo ta,
 izparringiak axatu...
 Oriotikan
 Donostiraño
 Jokoa zuten eratu.
 Zubitik irten
 ur-gora eta
 errexola zan gertatu...
 An artu zuan
 abiarekin
 Aundia zeñek geratu...?

Barran dijoaz,
 bein ziya eta
 bein ugiñetan koloka...
 Oribar eta
 Talaimendi'tik
 Makazagari txaloka...
 Iru minutuz
 aurretik dala
 pasa du Gaztaiñarroka...
 Ezker-besoa
 karranpaturik,
 antxe jarri zan alboka.

Indar osoan
 zijolarik,
 aldi txar onek ausia,
 beso elbarri
 miñak jarri zun
 okerka eta nagia.
 Ala ta guziz,
 atzetik baña
 erdi-lanean etsia,
 txalo-irrintzi
 enbatarekin
 sartu zan gure Aundia.

BIKOTEAK

Bi dira Txokolate
 eta Sarasua...
 Amaika bider oien
 jo-aldi gartsua,
 etsai danak garaitzen,
 degu txalotua.
 Nun sortuko da berriz
 olako bikua...?
 Iñaki Manterola
 eta Sarasua...

Erramun Lino eta
kideko Makatza...
Oien izena ere
historian datza;
bata bestea bezin
borrokari latza,
banderetan azalduz
arraunaren gatza.
Erramun Lino eta
Ubeun Makatza...

"TXOKOLATE"

Milla bederatzireun
ogei ta zortzian
arraunak atera zun
otsa Kantaurian:
Bi tantaien indarrak
neurtze larrian...
Oberik ez da sortu
gure gorantzian.

Erronkak nastu zuan
itxaso ta legor:
—Euskaldun gauza danik
baldin bada betor...!
Aspalditik ari zan
irrintzika gogor
Ondarrabi'ko seme
Araneta Todor.

Orduan azaldu zan,
arrokeri gabe,
Iñaki Manterola
edo Txokolate,
erantzun au emanaz:
—Ikusteko gaude,
Kantauri-barrutian
nor geran alkate...

Iritxi zan eguna
borrokatzekua...;
aize ta euriakin
bildu zan mundua,
baiña jokatzerik ez...
ain zegon gaiztua,
ur-ikara zirudin
itxaso nastua...

Astearte goizetik
dena zan artua:
Igeldo, Kontxa-aldea
eta Gaztelua...
Larri zegon jendea,
egon-aspertua;
batelak irteteko
ba zuten ordua...

Zunpetekoa noizbait
lertu zanarekin,
an dijoaz batelak,
biak berdin-berdin...
Bide luzean iñork
aurea artu ezin...;
kanpoko balizetan
ziran alkarrekin.

Andikan Txokolate
igesi dijua,
gaillen, zirudiela
egetan kayua...
iya minutu batez
txit aurreratua,
indarrean iritxi
zan Orio'kua.

Ura zan Donosti'ko
bapore-txistua...
ura Ondarrabi'ko
ezin sinistua...!

Txokolate'k merezi
du errespetua...
Arraunerako jaió
bai zan "ijitua"...!

Atzetik Araneta,
nekeak lertua,
tostartean jausi da,
txaloak besterentzat
estropa galdua...
Bai latza damaioten
erruki-eskua...!

Ogei milla peseta,
arraun da batelak
ar zituzten indarrak
etziran motelak...
Astindu ziran ongi
jokoan orbelak;
elizan otoitza ta
erretzen kandelak...

SARASUA

Txokolate'ren urrena
Sarasua'ren izena
aipatua da geiena.
Albiste onek igaro ditu
itxas-alde ta barrena:
Pasaya'n arro zezena...
Orio'k sartu eztena...
Ori dek ori kema...!

Iñola ezin zeikela
aieri kendu txapela,
zioten mintzaz onela:
—Talo-jaleak nola garaitu
mariñelaren batela...?
Paulino ez da motela,
baizik indartsu zimela,
pasaitarra dan bezela...!

Balizetan ziran jarri,
begiratuaz alkarri,
arraunketaren egarri.
Txapela kenduz, aitarene egin,
soka oiñetan ezarri...
Zirala begi-belarri,
jo zuten txanpa leigarri...
Etzeuden aiek elbarril

Borroka estu-estuan,
ur-geldi eta nastuan,
neurtu ziran beinguan...
Gero Paulino errenditu zan
eroriz batel-barruan...
Orio'koak orduan
ba zeukan gatzta eskuan,
ta arraunak jaso zituan.

Iñaki trebe azkarra,
etzera noski baldarra...;
ba gendun zure bearra...!
Ixildu dezu Pasai aldeko
erronka eta diarra:
Kantari zegon ollarra,
moztu diozu kalparra...
Taluck ba du indarra...!!

LAUKO TALDEAK EZIN-OBEAK

Lau Manterolatarrak,
Uranga, Zumeta,
lauko Sarasuakin,
Azkuetarrak eta
beste lauко bikaina
Solaberrieta...
Oiek osatu dute
banderazko meta.
Agirian dagona
ez da berriketa.

Oliden lau anaiak
 bai dirudiela
 danak arraun banakin
 jaiok direla...
 Batean txalopa ta
 bestean batela...,
 oien burutik ez da
 eizantzi txapela.
 Orra zazpi laukoak.
 Bejondeizutela...!

Arraunketa-lanean
 oiek aña kemen
 ez du azaldu inork
 ez an da ez emen.
 Zazpi laukoak jarriz
 joko-aldi baten,

a zer borroka latza
 izango luteken...!
 Olakorik ez bait da
 izan da izanen.

BANAN-BANAKOAK

Banderak jaso dute
 bakoitzen izena:
 Arrillaga, Lertxundi,
 Elizondo'rena,
 Etxeberria, Loidi,
 Otegi, Eztena,
 Portu, Altxerri, eta
 beste askorena...
 Danak merezi dute
 gure oroipena.

PATROI AIPATUENAK

OLAIZOLA

Lema-zai argi zuzena eta
 itzal aundiko gizona;
 bear zanean setatsu eta
 ari berean txit ona;
 txapel-azpitik buru txurira...;
 begiratua sakona...
 Onek eratxi zuan Luis Karril
 aspaldi garai zegona.

Amabostgarren urtekoa zan
 donostiarren aldia...
 Kaia-gaiñetik goibel jetxi zan
 Olaizolaren begia;
 bai esan ere: Nik artuko det
 gaur Uranga'k zun ontzia,
 musika oni emango zaio
 ordaiñetako neurria...

Amaseikoan ba zun Orio'k
 nai ainbateko indarra.
 Erraldoientzat arraun aundiak...,
 txalopa zuten baldarra;
 ala ta guziz, sei treñeroai
 aixa jo zien adarra.
 San Nikolas'ek bedeinkatu zun
 Olaizola'ren gabarra.

Etsai aundiak ezin zutena,
 urteak zuten autsiko;
 emeretzian txalotu gendun
 patroi au azken-aldiko.
 Zin egin zuan, erri maitea
 etzula goibel utziko,
 ta marka jarriz, banderarekin
 garaitu zuan Kiriko.

Txalopa egin Ondarroa'n, ta
ostiralean artzera...
Egun artako barra gaiztoak
itxi bait zien sarrera,
bizkarrez berak ekarri zuten
Getari'tikan etxera;
jai artan jun da bai jaso ere
Donostiya'ko bandera.

Errespetoko maixua bait zan,
giza-legean zuzena;
Inork kenduko ez dion eran
txapela jantzi zuena.
Gaur San Nikolas txaloparekin
dabil zeruan barrena...
Orio'n kale batek bear du
Olaizola'ren izena.

MITXELENA

,Oriotarren arraun-besoak
nagitu ziran orduan,
zuzendari bat bear zan eta,
laister arkitu genduan.
Maixu argi ta zorrotza bear
alako aldi estuan,
eta Domingo Mitxelena zan
danen gogoko auzuan.

Uranga'rekin bitan galduta,
erabat giñan okildu...
Arrillaga'ren aldi bikaiña
Domingo'k zuan murgildu.
Gero Pedreña'k jota giñuzen
Urdangari'kin amildu,
ta Mitxelena'k, egur emanaz,
mundu guzia ixildu.

Santander'koak eratu zuten
egundaiñoko estropa,
Pedreña'rentzat ziralakoan
bandera eder ta kopa.
An Makatzaga ta Mitxelena'k
erakutsi zien popa.
Alaxe berriz nagusitu zan
oriotarren txalopa.

Mariñel-azal gorri-beltza ta,
begiak alai urdingo...
Irriparrezka miatzen zitun
inguru eta urringo.
Maltzur-leiala, etzuan iñoiz
joko gaiztorik egingo.
Oriok beti aipatuko du
Mitxelena'tar Domingo.



ESTROPADA

Baratzan ori-ori
estropa-lorea,
udazken-apaingarri,
grinaak esnalea...
Ezaugarri auxe du
Oriok berea.
Jokoan bai ta ezetz
apostu-zalea...
Txapelak nor ote du
aurtengo jabea...?

.....
Au da goizaren
erne alai...
Alderdi-Eder,
mendi ta kai
margo bizian
daude dirdai...
Ontziak milla
urduri, zai,
noiz abituko
urteko jat...

Jendearen emana
kalean ibilki...;
ormatik zintzilika,
aitzetan atxiki...;
ontziak bi lerrotan
lotuaz poliki,
ur-barrutia dute
erdian iriki.
Danean txuri-gorri
eta kikiriki...

Estropa da, estropa...!
Goazen kai-aldera,

arraunlari bikaiñak
leian ikustera.
Txalopak ugiñetan
gora eta bera,
igesiai eman da,
itzuliz ostera...
Baliza jo artean
denok larri gera.

Gurditik jetxi dute
ontzi sakratua,
erri-ardurapean
arretaz zaindua.
Auzpez jarri ta, eman
berun autsatua...,
labaindu arte, goxo
ibiliz eskua...

Garaipena diote
aldekoak opa,
laztanduaz bizkarra,
branka eta popa.
Il edo bizi bait da
joko dun estropa;
aizken-igurtziakin
gertu da txalopa.

Botaldi baterako,
danen asegarri,
lau onenak dituzte
balizetan jarri.
Arraunlariak tinko,
borroka egarri...;
inguruak aiengan
begi ta belarri...

Pascia'k gorrixka du,
 Orio'k oria,
 Ondarrabi'ak musker,
 txuri Donostia.
 Besoak luzatuta,
 au ezin geldia...!
 Erne daude artzeko
 irten-agiria.

Lenengo ekiñaren
 eztenkadarekin
 an dijoaz txalopak...
 Zein buru...? Ez jakin...
 Batean jauzi dira
 olatuarekin.
 Legorreko jendeak
 oyuka du ekin.

Baleak dirudite
 ur-pean galduaz;
 azaldu dira berriz
 urak arrotuaz...
 Amalau zanko duten
 pistiak ur-joaz,
 olatuak agurka
 dotore dijoaz.

Berrogeiko
 arraunketan
 Orio da
 balizetan...
 Palaldi bat,
 palaldi bi,
 Donosti, Pasci,
 Ondarrabi...

Brankalari,
 zuti ari...!
 Baborrekoak ziya, ziya...!

Estiborrak jo dun guziya...!
 Bi olatu
 gaindiatu
 zaizkiguk eta,
 zabal artu...!

Suak artuta dago
 Donosti guzia,
 itxas-aldera larri
 josirik begia.
 Treiñeroak ba datoz
 Bi Puntetan ia,
 orra, lantzak artuaz,
 dakarten abia...

Arraun-besoak blaitsu,
 tenkatuz indarra,
 txuri-txuri uzten du
 albotan aparra...
 Ukabilka patrioak
 mutillai diarra...
 Alkar autsi-eziñik
 pasa dute barra.

Rau, Rau, Rau...!
 Dotore datoz arraunecan...

Rau, Rau, Rau...!
 ori-oriyak amalau...

Grinak sasoi du
 abotsetan...;
 poza ta penak
 burruketan...;
 auzi-gizonak
 oarketan...;
 irrati danak
 berriketetan...

Txanpak menderatu du
aizken-olatuaz;
oiuka goitik bera
dator Gaztelua...

Arraunak gora...;
begiak zora...;
txalopak, nagia,
etzan albora...;
mutillak, larri,
ura kolkora...

Kaia zurrunbilloa...;
ik neri, nik iri...!
Garailleak ausartsu,
galduak inbiri.
Sedazko zapitxoak
aidean piriri...
Estropak berea du
ixkanbilla ori.

Orion txintik etzan,
oaizik esperantza.
Berri onak batetan
rutsi du zalantza,
su-ziriak alaituz
erri-enparantza.
Orain ikurrinpean
arraunlari-dantza.

Danbolin,
danbolin,
danboliña juaz...;

zapiak
oriak
aideratuaz...;
neskatil
ta mutil
lepotik elduaz,
kantari,
dantzari,
arin dijuaz...

.....

Ontziak gibel eman
diote jaiari;
kaiok bildu dira
aien ordezkari...
Urrumaka laztanduz
darraio Kantauri
Itxas-Erregiñaren
urre-ondartzari...
Agur, Donosti eder,
euskaldun-atari.

.....

Arranoak aidean,
arraiak igari...
Oriotarrak dira
berez arraunlari.
Oiekin estropada
beti kontuz ari...
Duanar eman bear
zaio duanari.



ARRAUNKETA

Itxasontziak jendez gainezka
Donostiya'runtz goizetik
etengabeko sarda luzean
legunki datoz nunaitik...

Gizonez dana josia dago
itxaso eta mendia,
Euskalerra'k ospatzen bait du
errantzale-jai aundia.

Mutil bikaiñak arraun banakin,
zarrena patroï dutela,
irtera jo-zai urduri daude
egon-eziñik bezela.

Abi-aldiko zunpatekoa
lertu dalarik aidean,
lau treiñeruak tximistak artuz
antzeztik bat-batean...!

—Mutillak,
ekin!
Batera!
berdin!
arraunak
arin!
Ori dek,
Txomin!
Etzegok,
ezin,
onik gu
bezin
eguzki
azpin...!!

—Utzi txanpari...!
¡Raul lasai jo...!
Lasai mutillak...
lasaiago...!

Arraunak luza...! eta
ez ain xarri bildu:
Gerri-laguntzarekin
zabal-zabal artu...!

Arin dijoaz danak, kementsu,
bata bestien ondotik,
Donosti, Pasai, Ondarrabia...
Oriyo zerbait aurretik...

Barraz kampora erten dirade
arrotz itxas barea.
Alde bitatik lurrun-ontziak
jarraituz oien bidea.

—Biran gaituk, ta erne,
ankeko ta buru...,
beso-lanak moldatuz
tangaren inguru...!

Aupa lenbaitlen,
urrekalari...!
Bejondaikela
Prantxisku-Mari...!
Eskubikoak
jo xarri-xarri,
ausi dezagun
pasaitar ori...!

Egiñal erain
ezker-eskubi...!
Bapo mutillak,
Ori dek ori...!!

Lasai gazteak...!
Jo batean...!
Aurretik gaituk
Ugartean...!
Etsaiak mende
or atzean
zetozte eta
lerreiñean...!

Lurrun-onziak jaupa ta txistu
alaitzen dute bazterra,
adieraziz beren poza ta
arraunlarien lasterra.

Gaztelupeko sarrera da, ta
ura treiñeru-gudua...!
Orio, Pasai, Ondarrabia,
Donosti pixkat aitua...

Kaia-gaiñeko ixkanbilla ta
diru-ixtillu soñua...!
Batzuentzako inperua da,
besteentzako zerua...

—Sarreran gaituk;
gu garañlle...!
Aizken-aldi au
griñaz bete...!
Arraunak bildu,
Ekin ortxe...!
Egiñaletan
autsi arte...!!

—Batean
asi,
arin da
bizi...!
Arraunak
josi
urpean,
ausi...!
Gu gaituk
nausi...!!

IK NERI, NIK IRI...

(1962?)

Jaso dizkiat ire
bertsoak, Artola,
tontoretik egiñak,
bai arranopola...!
Ez diranak jartzea,
itxusi dagola,
ori ba dakik baiña,
iri bost ajola...!

Ondarrabi dezute
zeruraño iyo...;
orren lanak ez dik ez
ainbeste baliyo.
Neurketa garbian
etzituken piyo,
orregatik lotuta
zeukatek Oriyo.

Ondotxo egin ditek
 zamorro-pastela,
 Oriyo'i galazteko
 jokatzen txapela;
 Lujanbio'ren kezka
 kenduaz orrela;
 bandera eramaten
 gaitz uken bestela.

Emen artuta gero
 txapeldun-agurra,
 kantari zebiltzaten
 uxaka bildurra...
 Santander ta Bilbaon
 galdu dik zintzurra;
 Pedreña'k eman zioke
 irutan egurra.

Igaz etorri ituken
 Santoña aldetikan,
 zapi beltzak astinduz
 gurdi-leiotikan;
 curten asentatuak
 dituk orratikan;
 autobusa pasa dek
 ixil-ixilkan...

Bizkai'ko txapeldun gu
 izan gaituk sarri...;
 Ondarrabi'k ba zeukak
 orretxen egarri...
 Etzakela iñoren
 aitzakirik jarri;
 iyak ez dik beñere
 lastorik ekarri.

Obe ziken kanpora
 ez ba litz azaldu,
 orrekin Gipuzkoa
 ez bait dek goraldtu;
 nunbait gure izarra
 nai ziken itzaldtu...
 Orio'k Santander'en
 ez dik iñoz galdu.

Ondarrabi'k taldea
 oso dik nastua:
 Irun, Bidani, Lezo,
 eta Pasa'kua,
 Oyartzun, Donosti'ko
 ta abar osatua.
 Orren izena bear
 likek Gipuzkoa.

Irun'dik Guadalupe,
 andik Amute'ra...;
 eten gabeko dantzan
 zebillek frontera;
 musika ta sermoiak,
 bazkari aukera...
 Ondo bedeinkatua
 zeukatek bandera.

Ez aizetu geiegi,
 Ondarrabi jauna,
 Kantauriyak ez dizu
 makurtu belauna;
 ixilik ortxe dago
 erri bat ezauna;
 orrekin bear dezu
 neurtu arrauna.

1964

Milla bederatzireun
 irurogei ta lau,
 gogoan izateko
 urtea degu au.
 An-emen dantzatuaz
 arraunak rau ta rau,
 Orio'k sei bandera,
 beste danak barau...

Kantauri-kosta dago
 zain-ikaratua,
 ikusiaz Orio
 legoi esnatua.
 Len arrantzalea zan,
 gaur legorrekua,
 ala ta oiek lengo
 lepotik burua.

Sei bandera ditugu
 aurtien jokatuak:
 Andoain, Zarautz, Liga,
 Donostiya'kuak,
 Asturias ta Bermeo'n
 txapelketakuak,
 danak irabazi ta,
 Orio'n jasuck.

Gaztelupean batek
 ari zun diarka:
 —Itxas bare onekin
 ondu baietz marka...!
 Ondarrabi'ren indar
 Orio'k ez dauka;
 ijitoen kontura
 a ze diru-mauka...!

Isekaz ari zan da,
 guk ezin onartu.
 Ezta-baidan giñala,
 arraunak txanpatu,
 eta Orio gailen,
 asi ta bukatu...
 Ikusketak mingaiña
 utzi zion mutu.

Bermeo'n urez bete
 zitzagun txalopa,
 España'ko txapela
 genduanai opa;
 olatuan murgilka
 branka eta popa,
 itxas-gizonena zan
 jo gendun estropa.

Nabia'kin Sestao,
 aurretik Moaña,
 Orio geldi-geldi
 atzetikan, baiña,
 patriiak artu zion
 lanari tamaña.
 Mende ziranak, gero
 buru alajaiña...!

Ba dira beren kaltez
 ibiliak setan,
 sakelak arinduaz
 apustu danetan;
 txistu jo digutenak
 sari-banaketan...
 Maixurik ez da nunbait
 oien eskoletan.

Ixpi gorriak beti
 erne ditugula,
 zaitu dute auntzaren
 gaberdi-estula...
 Batean palka dala,
 bestean tipula,
 oiekin ez da izan
 pakerik sekula.

Gure txalopa nai ta
 ezin arrapatu
 dabiltzanakin, nola
 gintezke fidatu...?
 Getaria'n estropa
 maltzur zan eratu,
 bestela jai dutenak
 antxe arrixkatu...

Sosketaren aurretik
 izanduak gera,
 juraduko gizonai
 adieraztera,
 desberdiñegi zala
 balizen tankera;
 legez irabaziak
 al datoz kentzera...?

Ala, zuzendariak
 zuten erabaki,
 beste bat jokatzera
 Donostia'n aurki.
 Zenbaitek olakotan
 obeitzen ez daki,
 beti nai duten eran
 oituak izaki.

Gauza izan ezkerro,
 ez altzen ohea,
 mingaiña lotu eta,
 berriz jokatzera,

juraduko gizonak
 errespetatzea...?
 Alperrik da bestela
 gizarte-legea.

Zalaparta gaiztoan
 ditugu ikusi,
 Ligatik erretira
 egiten itxusi.
 Aurretik dabillena
 izaten da nausi;
 griñagatik eziña
 ez diteke autsi.

Zertan ibili gera
 izerdi-jario,
 aurreko lanak gero
 ez ba du balio...?
 Ustez mendekoa zun
 San Juan'ek Orio.
 Zakurrak, uste gabe,
 koska egin dio.

Pasaya'n ari dira
 bitaminak artzen,
 datorren urterako
 mutillak indartzen.
 Eziñak askotan du
 asarrea sortzen;
 txapela jantzi dunak
 ikasi erazten.

Oliden'dar Batixta,
 nai duenak jakin,
 arraunlari zan aurten
 oriotarrakin;
 berrogei ta bost urte
 izanik berekin,
 osorik etorri da
 ikurriñarekin.

Batean gaizto dala,
bestean txit bare,
itxas-giro danetan
sartuak gaude.
—Ondarrabi, alda zak
muskarren kolore;
aurretik ibiltzeko
oriya duk obe...!

Pasaitar batek zion
antxe Portaletan:
—Inork ez du guk aña
sari banderetan.

Esan genion: Orra,
pillaturik metan,
Orio'n sobratuak
esku-zatarretan.

Esne onak artuta,
gero mantekilla,
legun-legun jartzeko
txaloparen killa;
oiekin indartua
da gure kuadrilla.
Gurelesa'k merezi
ditu esker milla.

BI ALDETAKO SETA GAIZTOAREN AURKA

1966

Aurten gertatu dana,
asi naiz esaten,
ez dakitenak ondo
ikasi dezaten.
Pakean bizi nai ta
ez gera moldatzen,
azpikeriak ez du
gauz onik ekartzen.

Legorrekuak gendun
txalopa osatu,
arrantzalien ordez
nai ba zan jokatu...
Alkate Jaunak baietz,
ta gero ukatu...:
zakurrari bezela
zaigu ostikatu.

Orain bi urte giñan
gutziz txalotuak,
arraun-klase danetan
nausi geldituak.
Gero txartu al gera
orduko santuak...?
Zer ikusi du gugan
Ayuntamentuak...?

Urteko sei bandera
bedeinkatzekuan,
ezta-baida sortu zan
amandre-kontuan.
Uskeri orren griñak
zaiña bota zuan;
geroztik ez da izan
pakerik auzuan.

Oriyo'tik asarre
 Donosti'ra karta
 etorri da botatzen
 sua ta txinparta...
 Inbiri gaiztoa da
 izaten ausarta;
 Oriyo izenetik
 gaituzte aparta.

Gal-zorian da gure
 txaloparen lema,
 bi gizon setatsuak
 dutelako tema...
 Jo dezatela biak
 alkarrekin dema,
 utzirikan erria
 galtzeko xistema.

Arraunak bota dira
 erritik aparte;
 danak bilduta pozik
 jarri da Lasarte...
 Zalaparta obekin
 erriak du kalte.
 Muskarra (1) lasai dabil
 ola geran arte.

Erri txikiak bildu
 bearra du eta
 sakabanatu dute
 gure indarketa.
 Alkartasunarekin
 osatzen da meta...
 Bi aldeko jauntxoak,
 alperrik da seta.

(1) Muskarra = Ondarrabi.

1970

Milla bederatzireun
 irurogei ta amar
 garren urtean giñan
 galdez etsi xamar:
 Oriyo'k ez ote zun
 lengoratu bear,
 banderak jasotzeko
 Kantauriyan zear...?

Balizen gora-bera,
 ertzak edo erdin,
 gairdiko al dunentzat
 denak dira berdin.
 Ur illetan bezela
 zakarraldiakin
 oriotarrak jantzi
 dira txapelakin.

Santoña'n gure lanak
 erabat arritu,
 ontziagatik zala,
 noski, ez meritu;
 ta gero Donostia'n
 denak errenditu.
 Olako astinduak
 erri onek ditu.

Orio txit aurretik,
 Lasarte zan gero,
 Ondarrabi urrena,
 laugarren Xubero,
 San Pedro ta Zumaya,
 San Juan atzero,
 azken donostiarrak,
 etzuten espero.

Estropada jarri zan
oituraz aparte,
itxas aundiarekin
alkar autsi arte.
Lan aundi ortarako
talde au dakarte:
Xubero, Donostia,
Orio, Lasarte.

Getari'tikan asi
ta Donosti'raño,
ez bait zan estroparik
joka oraindaño.
Ikus-giro txarra zan,
lambro eta laiño;
obea nai litzake
izan genun baiño.

Taldeka bota ziran,
jarririk propiyo,
beste danak aurretik,
aizkena Oriyo.
Laiñoak Altzerri'ri
ajolik ez diyo,
Mendizorrotz baiño len
egin du ariyo.

Juradua larri zan
kronometratzeko;
Oriyo'ren atzetik
zein dan jakiteko,
prismatikoak bear
ziran ikusteko.
Nagusitasun ura
etzan sinisteko.

Oriyo lendabizi,
Lasarte urrena,
Iruigarren Donosti,
Xubero aizkena.

Laiño-pean joateko
Altzerri'k du sena,
brujula txaloparen
atzeko kirtena.

Igeldon jarri zuten
Akelarre-sari,
Donostin lenengo ta
lastarren zanari;
premiyo auek ziran
danen zirrikari,
eman dizkiotenak
gure txalopari.

Pedreña'k azalduaz
geiegi kalparra,
Koruña'tik zetorren
kantari oillarra.
Santoña ta Bilbao'n
kukurruku txarra,
Oriok lau alditan
jo dio adarra.

Pedreña ori genun
"Kampeon de España",
sari merkea noski,
dalarik apaiña.
Titulorikan gabe
Orio zan baiña,
buru-txortena kendu
dio, alajaiña...!

Portugalete'n zaigu
lertu aien miña,
oinpean zapalduaz
gure ikurriña.
Erronkak ez du jazten
iritxi-eziña;
itxusi gelditu da
basatien griña.

Bein edo bein txapeldun
 izanak ba dira,
 geroztik geldituak
 erabat azpira.
 Orio'k bakarrik du
 betiko segira,
 ori-ori gaillenduz
 urrezko dirdira.

Tosta ibilkorrean
 asi giñanetik,
 Espaiñi'ko txapela
 da gure aldetik.
 Saiatu gera eta,
 aizkenean iritx,
 menderatu ditugu
 Oxford eta Kenbritx.

ARRAUN-DOIÑUAK

1975

"Orio
 es un jolgorio
 con Olaizola
 de capitán...
 Pero Kiriko ha dicho
 que en Santa Clara
 lo va a dejar".
 Jokatu zan estropa
 eta txalopa
 San Nikolas
 banderakin dijua,
 txapeldun goratua
 una vez más.

Donosti'tik Bilbo'raño
 beti gaituzte goraldtu,
 Santander'en oraindaiño
 ez degu beñi ere galdu.
 Arraun-jolas bikaiñetan
 ez al degu ba ikusi,
 sarri ezik, geienetan
 Orio dala nagusi.

Ba da patroi bat ogei urteko
 marka ezarri duena:

Iru estropa joka gabeak,
 beste danetan aurrena;
 sei oyaletan bildua dago
 Olaizola'ren izena.
 Gaur San Nikolas txaloparekin
 dabil zeruan barrena.

Arrillaga'ren pasai-arraunak
 gaillendu ziran orduan,
 Domingo Beltza'k jarri zun berriz
 Orio bere lekuan;
 gero Pedreña Santander'tikan
 erronkaz deika genduan,
 ta Mitxelena'k bein eta berriz
 denak ixildu zituan.

Patroi Mitxelena ta
 Portu ankekua,
 baborretik Oviden,
 brankan Sarasua,
 tostan bi aldetatik
 indarra naikua...
 Garaitu-eziña da
 gure treiñerua.

Bandera zarra degu
 denen erregiña,
 Luis Karril'ek beretzat
 nai zun ikurriña;
 ba da pilla ederra
 geroztik egiña,
 diamantezko jaiak
 ospatzeko diña.


Ligak jarri zun kopa,
 egundaiñokoa,
 Santander, Donosti ta
 Bilbo artekoa,
 sei estroparen puntuz
 guk jasotakoa;
 txanpainez betetzeko
 a zer lapikoa...!

Kopa-Nerbion berriz,
 Bilbo'ko burua,
 itxas-ontzi tankeran
 zillarrez landua,

iru urtez errezkadan
 irabaztekua.
 Pozik ekarri gendun,
 bai alajainkua...!

San Nikolas txalopa
 izan da mamua,
 estropa guzietan
 ikara sartua;
 aron kemena dabil
 orain gaztetua.
 Oriotarrak lengo
 lepotik burua.

Begira, begira nola
 dijuan aidean,
 gaillenduaz txalopa
 olatu-gaiñean...!
 Arraunak ur-pean autsi,
 jo aizken-indarrak...!
 Aupa...! gu gaituk nausi...!
 Gora Oriotarrak...!



ERRAMUN ITXUA

Erramun Itxua zan
 itxu argiena,
 musu itzala baño
 irripar zuena;
 oñutsik ibilkari,
 bidean zuzena;
 kayuak ditu lagun,
 itxu-mutil, sena.

Itxasotik arraia,
 ikullun esnea...;
 anaiakin erdira
 du bizi-bidea.
 Legorrera orduko
 an du bei-para,
 mintzo jakiñarekin
 txirta eskalea.

Bizkarrez belar-sorta
 zekarren batean,
 subea sar zitzaion
 kolko-barrenean.
 Otzikarak ez dio
 eragin kaltean,
 goxo-goxo artuta
 utzi du larrean...

Itxua itxu, baño
 alai du izketa,
 itxas-egaztiakin
 maite-berriketa...
 Bere kayuak jo du
 bekaitzez antxeta,
 kurrirkan mokokari,
 egiñaz ilketa.

An datorkio gero,
 urrumaz kayua...
 —Atoz, dasaio berak,
 etorri, txintxua...,
 jaki goxoarekin
 luzatuz eskua.
 Kaxk...! artzen dio eta
 intziriz dijua...

Azal gorri-beltzean
 basojaun bizarrak,
 zain-ariz lerrotuak
 beso ta zankarrak...
 Begiz joak zituzten
 bai oriotarrak
 Erramun Itxuaren
 griña ta indarrak.

Estropa-garai al da...,
 danak aren billa...
 Motel-aldian piztu
 oi zuan kuadrilla,
 irrintzi biziakin
 goituz ukabilla;
 jo-aldiak geitzeko
 ura zan mutilla...!

Otsak esaten zion
 belarri-ertzer,
 erri bakoitzak dula
 bere arraunkera;
 nungoa zan aurretik,
 zein geldi atzera...,
 laster ematen zion
 lanari tankera.

Batean txalopatik
jo zuan diarka:
—Asi dek Donostia
eziñaren aurka...;
nabaitzen diat oien
xirriki-xarraka...
Aurten nai zuan baño
Kiriko'k jai dauka...!

Estropa ondorean
edana zun etsai,
ta lenbaitlen etxera
zioten bultza nai.

Itxuak parrez-parrez
dasaio lagunai:
—Illuntzean joango nauk,
egonari lasai...

Bera zan tostarteko
lagunen itzala;
etsai ausiarekin
txapeldun apala.
Frantzi'tik ekarri zun,
Loidi patroi zala,
urrezko medallakin
ikurrin-oyala.

ORIO'KO MOTXA

Soiñez ttattarra zan, bai,
gixajo ergela,
eztarri-laiño eta
izketan motela;
muxu-gorri baikorra
danentzat zuela,
serbitzari ordear,
iñor ez bezela.

Erriaren mutil zan
eta mandatari;
berri bat emateko
urrutikoari,
zintzo ta ziurrena
Motxa laixterkari...
Gazta-koxkorra janaz,
ba zun naiko sari.

Beti bide luzean
laixterka oitua,
ortan jarri zioten
korrikapustua,

tongoz galtzeagatik
eskeiñiz dirua;
baiña etzuan loitu
ark bere burua.

Getariraiño joan ta
bear zan etorri...
Motxa beti aurretik
korri eta korri...
Trabesak dantzan eta,
galduak elorri...
Erakutsi zioten
txuri eta gorri.

Soin txiki artan biotz
aundia izaki...;
maite-lagun bat nai ta,
billatzen ez daki.
Neskatillak diote
berrogei aitzaki,
ala ta etsitzea
ezin erabaki...

Alditan datorkion
maite-otzikara,
kitarraz abeslari
darama plazara:

"Ole molena,
viva salara...!
kele-kele-kele,
kele-kelira"...!

Sutondocan etzanik
opari-bildotsa,
eskuetan il zaio
eri zun biotza;

muxu gorrian bilduz
bere aizken-lotsa.
txiki zalarik, gogoz
aundia zan Motxa.

Alboka, uzkur dago
illik morroi ona,
begi-xabal, biotzez
egarri zegona...
Emaziozu, Jainkoa,
gaurtik zoriona,
emen mundu zekenak
ukatu diona...!

ORIO

"IJITO-ERRIA"

Bizkaia, Burgos eta
Santander artean
auzo txiki bat dago
mugarri antzean,
Karrantza'ko baillara
zabal ederrean,
Aldeacueva izen
leizak emanean.

Ango apaiz nintzala,
erbesteratua,
adierazi nai det
neri gertatua:
Mutiko batek zirar
luzatu eskua,
eskean zetorrela,
oso beartua.

Aita kartzelan zeukan,
ama gaixotua,
kurpilla puskaturik,
geldian karrua.
—Nungoa zera, txiki...?
—Ni naiz ijitua,
baña Orio'n jaio
ta bataiatua.

Oilloak errun dula,
maitea du kota.
Orio'ko sarreran
Txanka'ko errota,
inguruan aterpe
goxo dago ta,
jaio nai duanari
ezin zaio bota.

Etxe gabe diranak,
arrunt ibilkari,
estalpe billa datoz
erdi-min dunari.
Alaxe jaio dira
ijito ugari,
eskerrak izan duten
arrera onari.

Bekaizkeriak dakar
irri-ondorio,
on egiñari gaizki
erantzuten dio.

Ijitoak aterpe
dutela Orio...?
Erri denak ez dute
ortako balio.

Orra nondik datorren
irriz diotena,
oriotarrak duten
ijito-izena.
Deitura orregatik
ez degu, ez, pena;
errukitzea bait da
txalogarriena.

ORIO'KO SAN MARTIÑETAN

ABESTUAK

Eskaleari lagundu nai ta,
xixkuan urri dirua...
San Martiñek du ordutik kapa
ezpatatz erdibitua.
Maite-legeak mende artuta,
arrosko dabil mundua:
Gaur ezer ez dun beartsuari
kentzen diogu larrua.
,Oriok ba du mendi onetan
aspaldiko dan ermita;
amaika biotz urtuak dira
or belauniko jarrita.
Zintzo diranak egon litezke
Santu onekin etsita,
itzal ederrak babesten dula
San Martin-auzo polita.

San Martin-jaiak zillar-eztai du;
gaur Santuari omena...
Jai ederrakin ospatu degu:
Meza kantatuz aurrena,

euskal-jolasak kristau-giroan,
bertsolariak urrena,
Uztapide ta Mitxelena'kin,
Lasarte, irugarrena...

Kampai txikiak alai dirudi
aingerutxoen kriskitin...
Guk aurtzaroan ekarria da,
barku zar baten ondakin...
Eskerrak eman naian bezela
ari zitzaigun tin... tin... tin...!
bidean gora getozenian,
festara deika San Martin.

Lizargarate atsegiña da,
itxas-legorren atari,
ortxe pozikan ospatu degu
ancai-arteko bazkari.
Alkartasuna mai-buru dala,
gaur bezelaxe kantari,
ekin aurrera, baserritarrak,
artu dezuten lanari...!

Gaur euskaldunen oitura zarrak
 eta euskera gaixua
 edel-girotan egonagatik,
 guzia ez da galdua.
 Zuekin batez zaitzen bai daude
 baserri-auzo piztua
 Kukuarri'ko Amabirjiña
 eta Gurutze Santua.

Donosti pozik utzi degu gaur,
 San Martin dala meriyo;
 nere Lambretan Dike'tik gora
 jauzi-jauzika naiz iyo...
 Noiz egingo da itxas-aldeetik
 zorioneko kamiyo,
 esku emanda bizi ditezen
 Igeldo eta Oriyo...?

ORIO'KO ZAINDARI SANTUEI

Oriotarrak gora
 ditzagun kantari
 Aita San Pedro eta
 San Nikolas Bari:
 arrantza-lagun eta
 erriko Zaindari
 aitonen aitak jarri
 zizkigutenairi.

Onetsi zaiguzute,
 Pedro ta Nikolas,
 itxas-legorretako
 lana eta jolas.
 Zuen babesak duan
 garaipen-egoaz,
 Elizaren txalopan
 arraunlari goaz.

SAN NIKOLAS'I

Fede gabeko lanak
 ez bait du dalio,
 Santu oni lotuta
 bizi da Orio.
 Elizaren inguru,
 otoitza jario,
 erriak besarkatuz
 erregutzen dio.

Mirari batez jarri
 zenitun biziak
 tiñan gazitzen zeuden
 ume-aragiak;

itxasoa baretu,
 alaitu sendiak,
 beartsuai eratu
 ezkontza garbiak.

Elizaren txalopan
 arraunlari gera,
 ekaitz-olatuetan
 gora eta bera...
 Enbata menderatzen
 patroli ona zera,
 atoz, jaso dezagun
 zeruko bandera.

Arrantzaleak sarri
urrundu bearra...;
askotan nai ta ezin
igaro du barra.
Gaiztoan geldi zazu
bagaren indarra,
gau illunecan piztu
zerutik izarra.

Enbatak kolpatzen du
mariñela sarri,
ito-zorian jarriz
estu eta larri.

Zure patroï-arrauna
degu maitagarri,
berak gaitzala zuzen
portura ekarri.

Erri ta Elizari
eman nortasuna;
zuzentasun-bidean
argitu illuna,
Orio izan dedin
Jainkoak nai duna:
Eliztar zintzoa ta
beti euskalduna.

SAN PEDRO'RI


Gurutze santuaren
testigu bikaiña,
izkuntza guzietan
izlari mingaiña...
Gau beltzean pekatu
egin dezu baiña,
kementsu eman ere
odolez ordaiña.

Osorik gorde zazu
gure sinismena,
eguneroko ogia
gorputz-animena;
oitura garbietan
euskera lenena,
Jainkoa gurtutzeko
eman zigutena.

Kristoren gudariak
bear du burruka,
grñiak ondo lotuta,
etsaiari uka...
Larri-aldian gatoz
zugana ojuka;
salba gaitzatzu gure
biotzaren truka.

Goxatu zazu gure
lanaren samiña,
arindu sendietan
iritxi-eziña;
indartu gure alkar
maitatzeko grñak,
garbi jaso dezagun
gurutz-ikurriña.





Lirika-eta...



AGUR, MAITERE

Uste-gabean beti
dator il-ordua...
Gazterik onena gaur
ostuta dijua:
Ille-kixkur, begi-beltx
ogei urtekua;
azal txuri-gorria,
borobil muxua;
barruaren ixpillu
irri-par goxua...
Oraindik ikusten det
Maitere gaixua.

Buruz ondo jantzia,
kiskur orraztua;
garbi-alaia bezin
biotz aundikua;
gurasoen atsegin,
eliztar zintzua;
gizartean geienak
begi onez jua.
Orra eriotzaren
ausardi gaiztua:
Gazterik ederrena
ostuta dijua...

Aita-amari musuka
die loxintxetan:
—Zur ibiliko gera
zuen esanetan;
ez naiz gaur exeriko
ni motozikletan...
txoria bezin alai,
pozaren egetan,
erritik irten ziñan
iruterdietan,

jai-arratsaldearen
eguzki erretan.

Nola pinpilinpauxa
marrubi-loretan
dabil apain jantzia,
txuri egaletan...
Alatsu jetxi ziñan,
panpoxa benetan,
krabelin bat eskuan,
irri ezpaiñetan...
Zure berdinek etzan
erromerietan.

Añorgako jaietan
ixil da txistua,
zorigaitz biurtu da
kriskitin-soiñua.
Beti zegon Maitere
iltzeko gertua,
ta dantzan eldu zaio
eriotz-ordua.
Gu negarrez gerala,
poztu da zerua,
aingueruentzat nunbait
ez izan mundua...

Lastanki agurtzeko
izan du txolarte:
—Agur etzeko danak
eta lagunarte...
agur jolastokiak,
Añorga, Lasarte...
Zerua izan bedi
denoren alkarte.
Nere alde otoiñ bat
eta... gero arte...!

Laguntzaille ona ta,
 eskatzen apala,
 lanari jarraitzeko
 etziñan makala;
 gaur ere ixilik zu,
 egarri zerala...
 Guk amaituko degu,
 otoitz egin-ala,
 erdi-josirik utzi
 zenduan mantala.

Ba zuten zure lanak
 zeruaren usai.
 Jostundegitik beti
 bultzaka lagunai,
 amari laguntzeko
 arin etorri nai...
 Zeruan ere, orain,

ezingo dezu jai,
 aingeruak daude ta,
 jazteko zure zai.

Emen utzi diguzu
 oroigarri miña:
 Meza-liburu eder
 eta manteliña;
 Mariaren alaben
 lokarri urdiña,
 danak dariotela
 intzentsu-lurriña.
 Etzera zeruan lo
 egongo, jakina;
 goi-erromerietan,
 jarraiz lengo griña,
 dantzatu arin-arin
 txistu-danboliña...!

A M A

Jainkoaren altxotik
 egatu ziñana,
 lurrari emateko
 bear dun laztana,
 nundik zuretzat izen
 egokirik asma...?
 Zeruak aztertuaz
 osatu det: Ama.

Aldi-oro negar ta
 irri-par goxuan
 biotza urtu dezu
 curraren muxuan.
 Arrigarria zera,
 ikusi bait nuan,
 zure atsak erneko
 nautela zeruan.

Bai eder atariko
 intxaurren itzala...;
 inguruan jauzika
 jolasten moxala...
 Alatsu gogoan det,
 zuk laztandu-ala,
 aingeru-ametsetan
 esnatu nitzala.

Basauntzak ez du maite
 ustel-dun osiña...;
 lore-kolko garbiam
 erlearen griña...
 Nik zugañ xurgatu det,
 bear nuken diña,
 maite-legez emana:
 Kristo'ren dotriña.

Loitan bein bear eta,
garbi loretua,
etsaia bota dezu
txit porrokatua.
Giza-endaren aintzaz
jantzi da zerua,
erne zendualako
Jainko Gizondua.

Maitasun-urratsetan
eziko ba gera,
bereiz-itza nunbaitek
bear zan atera;
amaren biotzetik
datorkigu bera,
garbi ta goxo-goxo
mintzaki euskera.

AU LANA...!

Alkarren etsai dira
gaua ta eguna,
ordu-arrapazkari
bakoitzak al duna.
Gizartean orobat
pobre ta zalduna...
Eza mingarri da ta,
betor ondasuna.

Ekintza zuzenetik
ondasun garbia
betor, gizartearen
aberasgarria;
lapurrak lotu eta,
astinduz nagia,
daukanak ez-dunari
emanaz erdia.

Ondasun orokarra,
maite-giro duna;
eguneroko ogia
eta alkartasuna;
onezkoak eginda,
pakezko jarduna
aro berri luzean
emango diguna.

Azal-mamiz naizena,
ixil, agiria,
kaiku, bizkor, indartsu,
eder, itxusia...;
guzi oiek ba dute
alde ongarrria,
serbitzurako zaizkit
eman alegia...

Baiña pake santuak
or ditu bi etsai:
Alperren pobreza ta
aberatsaren jai,
maitasun-agindua
duela sendagai.
Kristo'ren fedeari
dezaiogun jarrai...!

Gaur barka bear degu
alkarren iraiña,
gerokoak ez bait du
mamitzen oraiña.
Danok ba dezakegu
qitzekia, baiña
biok zordun gera ta,
torizu ordaiña...!

Zuzen-okerrak nigan
sarri lertzen dira,
setatsu dabiltzala
jira eta bira...
Biotz-leiotik irriz
lotsa det begira,
nai-ezik naramala,
nai deten tokira.

Nere barruko seta
gaizto alen ori,
ikusi-zai natxeok
ire aizken-zori...!
Ene Jainko maitea,
ezer ba-naiz, tori...!
Eta lagun zaidazu,
ez nadin erori.

UTIKAN POBREZA...!

Utikan pobreza...! ta
betor ondasuna,
zintzoak lanarekin
irabazi duna;
orrek betetzen bait du
ezaren utsuna,
ezin dunari eman
bear dioguna.

Ez dut maite pobreza,
ez bait da txukuna
zekenen iturritik
datorren ur-juna,
gizona jartzeraño
biotzez illuna
eta pakearekin
bizi-alarguna.

Ba dira nai dutenak
ondatu mundua,
gizartean pobreza
jarriz banatua:
Industriak itxi ta
mendietan sua,
ukabillakin joaz
alkarri burua.

Ondasun-banaketa,
ez pobrezarena,
gizarte langilleak
da bear duena.
Izatekoz, neuretzat
izanik zekena,
besteci opa eta
emanaz aal dena.



BIOZKADA

Zati txiki bat
 geldi ba zaio,
 erlojuak du igarri...
 Gizon bakoitza
 gera munduan
 pake-naspillen oiñarri...

Indarkeria
 lege danetik,
 gizartea da elbarri...
 Zabarkeriak
 astindu eta
 lagun deiogun alkarri.

Gorrotok du
 kalte-lanean
 laguntzaille bat bakarra,
 beste iñoren
 ajolakabe
 bizi dan gizon zabarra.

Borroka ontan
 guztiok degu
 ondo armatu bearra...
 Goimaitasunak
 menderatzen du
 atomikaren indarra.

Jaunari bertan
 agintzen diot,
 zintzo biziko naizela,
 guretzako dun
 ardura onak
 merezi duan bezela.

Lan-toki, jolas,
 etxe ta kanpo
 aleginduz orrela,
 gizarte ona
 osa bear det,
 gezurtia naiz bestela.

MARTIN LEKUONA

Iri-jario ziñan,
 gogoz aingerua,
 gizarte-serbitzuan
 beti kezkatua.
 Zerk eragin ote du
 gaizkiñen eskua,
 zu jo ta botatzeko?
 Madarikatua...!
 Ez nekian ain txarra
 zeikenik mundua,
 odol-zaletua...

Donosti-baztarrean
 illun Ondarreta...;
 an lotuak ba dute
 milla pentsaketa,
 gelditu nai ta ezin
 gaizkilleen seta.
 Itxasotik ekaitza
 orruka da eta,
 ondarrean jarraiki
 olatu-ilketa.
 Illun Ondarreta...

Piztu da gau batean
argi gezurtia:
—Martin, libre zera ta,
atera zaitia...!
Otso amorratuen
esku eroria,
pozik artu zuan bai
zai zeukan gurdia;
ez uste ura zanik
bere il-zoria...
Argi gezurtia...!

Ernani'k aldean du
iltegi santua,
aren azpikaldean
dago esitua
txoko itzalgarri bat
apaiz-odoldua.
An bota dute Martin
tiroz ebaindua...
Gaizto-lurra ordutik
da izendatua,
lur bedeinkatua.

Odolez gorri dago
gaur euskal-mendia,
odolez gorri ainbat
aldare-arría,
Eliz-Aberri-miñak
duten biltokia,
Jainkoari opalduz
euskal-martiria,
bear gendun neurriko
apaiz-oparia,
odolez gorria...

Arma-zaleak, ustez,
mende du gizona,
ustea da eskutik
itzuli zaiona...
Etsaiak izan beza
aldarte bat ona,
ikusteko santuak
duten zoria,
entzuteko erriak
negarrez diona:
Martin Lekuona...!

JOSETXO ERE IL...!

ZAMORA - ARRILLAGA'TAR D. JOSE ZANARI

Berri bat jaso genun,
urruti giñala,
eriotzak Josetxo
eraman zuala.
Orra uste gabeko
albiste itzala.
Nork esan eriotza
ain gaiztoa zala...!

Arindu bear ba zan
iñoren eziña,
apaiz onek egingo
zuan alegiña;
gizon osoa bait zan,
ta artean gordiña.
Sendakaitza da gure
gizarteko miña.

Bein esku eman eta,
gero ezezkuan...;
orrela pakerik ez
liteke munduan.
Gaitz orren sendagaia
Josetxo genduan;
asarreak ez bait du
lekurik zeruan.

Ez ote degu berriz
emen ikusiko...?
galdezka dira zarrak,
gazte ta mutiko.
Joxe aitatu ala,
gera belauniko.
Ezin uka, zorretan
gaitula betiko.

Agiriak galdurik,
zeruan sartu nai...
norbait larri zebillen
lagun on baten zai.
An jun zaio Josetxo,
irri-parrez alai;
eskutik eramamaz,
zeruratu du, bai.

Bertantxe gelditu da
gure sendakiña,
andik lagundu deigun,
bear degun diña;
an du betiko zeru
garbi ta urdiña,
Jainkoagan asetuz
bere maite-miña.

Zu bai ziñala, Joxe,
guzien laguna,
irri-parretan bilduz
serbitzu astuna.
Ikasbide bikaiña
da eman dezuna,
zerura zuzenduaz
giza-maitasuna.

Zeruko baratzean
zu krabelin gorri,
ta gu emen loratu
ezin dan elorri...
Miñez deika gaituzu
dezakezun orri.
Zeru-intza ederrez
sarritan etorri...!

TELESFORO GALPARSORO

Añorga Donosti'ko
langille-auzoa,
estalirik bizi zan,
autsetan itoa...
Gizonak osatzeko
ez baitu naikoa
izerdi-ogiakin
eziñen malkoa.

Susmo txarretan sarrri
bizi da pobrea,
goiko giza-maillakin
ar-eman gabea...
Jantzi al-izateko
gizonki ordea,
eziketak bear du
kultura-bidea.

Nabarmen izaten da,
 pozgarri osoro,
 nekazari onaren
 belardi ta soro...
 Añorga jantzi duna,
 eskolatuz oro,
 Galparsoro'tar au da,
 gure Telesforo.

Buruz argia ba zan,
 griñaz indartua,
 bear gendun neurriko
 eskola-maisua.
 Etorri zaionean
 atsedeen-ordua,
 Jainkoak eman dio
 betiko zerua.

Erri-mamiak ere
 bear du azala...
 Giza-mail guzietan
 zuan ark itzala;
 zarrak eta gazteak
 nastuan dirala,
 jaiak antolatzeke
 etzan ez makala.

Maite zendun erriak
 negarra du samur...;
 txapela erantzita
 jarri zaizu makur,
 biotz-zotinka zuri
 esan naiaz labur:
 Goian ikusi arte,
 Galparsoro, agur...!

EUTSI...!

Aurrera goaz eta
 izanik nekea,
 ez det utzi nai nere
 jokabidea.
 Jo-mugak ditut Jainko
 eta gizartea,
 ori-ariz, kristauki

gizon osatzea.
 Noiz-beinka bestea
 det biotz-gosea,
 ala ta ordea
 Kristo'ren Fedea
 dizut eragingarri,
 ezin ohea.



NEGAR-OSIÑA

Ik eraman dek eta,
eriotz sorgiña,
non duk gure sendiko
itzal, erregiña...?
Familiari sortu dek
bai negar-osiña,
bizi geran arteko
agortu-eziña.
Min-bizi onek jo du
gure bizi-miña...

Ama sariztutzeko
au mundu zekena...!
Ba da orratik uts au
betetzen duena,
zeruetako Jaunak

damaion omena...
Begiz ikusi nai ta,
orra gure pena...
Barkatu, ene Jainko,
degun itsumena.

Erakutsi diguzu
maitasun-bidea,
zure biotz-inguru
landuaz gurea...
Irabazi dezu, bai,
zeruko dotea,
eta gaur nai genduke
zu an ikustea.
Ate-joka gera ta,
azaldu zaitea...!

Izaba Margarita'ren eriotzean
1967-XI-22

GALDERA BIURRIA

Gogo eta mingaiñak
diote nor geran.
Adimen-argiaren
izpiak, sorreran,
begi-zizatzen daki
sorgiñaren eran.
Aurra galdezkarri da
milla gora-beran,
ala ta zoragarri
dakarren izkeran.

Berebilla burrundaz
dagoan tokira
ttaka-ttaka or dator
aingeru pizpira...
Gonatxoak astinduz,
itzuli ta bira...
galde biurria du
zearka begira:
—Nora zoaz nerekin,
aita, Donosti'ra...?

Ertzilla'tar Erraimunde'txok
4 urte zituala. 1928

ARGI IBILI...

Gazte garbi alaia,
 ba zoaz gudari,
 biotzez samindua,
 mingaiñez kantari...
 Gaurtik zure kezketan
 daukazun Amari
 egin seme-agurra

ta biotz-opari.
 Zintzoekin alkartu,
 iges etsaiari;
 arriskuan or dezu
 babesa ugari,
 Arantzazuko Ama
 da zure Zaindari.

Gudari-Billeran Arantzazu'ko
 1955-III-6

TXIRILIRULIRU

Txori batek esan dit,
 txiriliriluru...
 ezkontzen zeratela
 Karlox ta Mari-Lu.
 Nik opa dizkitzuet
 amar bat aingeru,
 osasuna, pakea,
 eta naiko diru...,
 sendia izan dedin
 zuentzako zeru,
 txiru-liru-liru...!



SAMIN-ORDUAN

Aberri maitagarria,
 negarrez dago erria;
 il zaigu Lendakaria.
 Bidasoaren alde banetan
 beso ta oiñez josia,
 Euskera iltzen asia,
 odola beltzez nasia...
 Zertarako da bizia...?

Euzkadi'k bere Jauncari
 seme onena opari,
 erri-otoitza du ari.
 Eriotz onek autsi du gure

bildurra zigordunari,
 zutitu jende ugari,
 azkatasuna eskari.
 Pentekostes'ko mirari.

Euzkadi degu kaiola;
 erria preso dagola,
 ezin ixildu iñola.
 Donibane'ko illobi orrek
 sutu du euskal odola.
 Aberriaren ajiola
 esku onetan dagola,
 pozik gaude, Leizaola.


AGUR MAXIN

Bakoitzak artu duan
 langidearekin
 zeruko aldapari
 bear diyo ekin...
 Ortan gelditu gabe
 dabilta zurekin
 goaize ta klariona
 jostorrazarekin.

Gaur Santo Tomas degu...
 Ausi eltzetxua.

Umientzat jostallu
 ta txilibitua...
 Ogitartean artu
 ta jan txorixua...
 Gero Txanton Piperri...
 Orra jai osua.
 Urte askuan izan
 gaur bezelakua.

1952



ARRILLAGA'TAR LOREN'I

Aurra seaskan dago,
 ama du laguna,
 arretaz igarotzen
 gaba ta eguna,
 luak laztandu dezan
 aingeru kutuna.
 Loren, zu zera gure
 ama-euskalduna,
 euskal-miña guregan
 ernetu dezuna;
 zure garrak Igeldo'n

piztu du illuna...
 Esker onez bete nai
 zorraren utsuna
 ta gogo-lorez tori
 euskal-bureztuna.
 Luza urte askuan
 dezun osasuna,
 zuregan ase dedin
 gure maitasuna;
 orra zure egunean
 opa dizuguna.

1953

ODOL-GIROA

Begira naiz Burgos'ko
 epaiketa orri:
 Elur-gaiñean lirain
 sei krabelin gorri
 odolduan zatzaka
 bi milla elorri...
 Martiri-egun latzak
 zaizkigu etorri.

Goroto-aize miñak
 belarrira txistu;
 il-zoria zaiote
 aldizka berriztu;
 il-kanpaiak dardaraz
 asi ta gelditu...
 Ezkutuko indarrak
 erriak bait ditu.

Estali naian dabil
 borrero zikiña
 goroto-urratuen
 garbitu-eziña.
 Arantxa'k kolkoan du
 oroigarri miña,
 zigarro-suarekin
 markatuz egiña.

"Gaizkille zerate ta,
 ixo...! Ez ukatu...!".
 Orra eskubideak
 zuentzat bukatu,
 epaia dezutela,
 ill edo urkatu...
 Gogorkeriak ezin
 zuzenik sumatu.

(1971?)

Nun da mundu berriak
 bear dun legea,
 oker-zuzenak garbi
 aztertu-zalea...?
 Zuen epai okerrak
 duan gaizpidea,
 munduan zabaldu da
 burrunbaz, ordeak.

Erria zuekin da
 kale ta elizan,
 murgiltzen zaituztela
 otoitzez kalizan.
 Zuzentasun-borrokan,
 martirien gisan,
 egia garai da ta,
 ez bildurrik izan...!

ERTZILLA-ARESO

EZKONTZAN

Ondarraki'ko "Punttaren-Punttan"
 kantari zegon kukua...
 Zantzu onaren gertakizunak
 berekin dakar baitua:
 Bitxori eta Joxe Angel'ek
 gaur egin duten tratua,
 Guadalupe'ko Ama Birjiñak
 jaso du bedeinkatua.

Altzak jazten du errekaldea,
 kameli-lorak negua...
 Maitasunikan ez dun biotzak
 miñik gabe du barrua...
 Arantzarekin ongi zaitzen du
 larrosak bere burua...
 Amaren poza opari da gaur,
 atsekabetan bildua.

Txanpaina dator ots aundiakin,
 bazkaldarrentzat sukiña;
 Kana'ko ezta artan Jesus'ek
 uretik ardo egiña;
 ezkonberrien txalogarria,
 edari bizi ta fiña.
 Dudarik gabe poztu nai du gaur
 Jesus'ek Ama Birjiña.



EZKONTZA EREÑOTZU'N

Gaur Ereñotzu'n eztaia da ta,
danok lekuko izan nai...

Ezkon-galdera egin orduko,
biek erantzun dute: Bai...!

Juan Antonio ta Pili,
beti zintzo ibili,
ondo ikasiak jarrai...!
Zeru ta lurak begira daude
zuen frutu onaren zai.

Ziñez loturik alkarri eman
dizute gaur eskua;
gizarteari on dakiola
egin dezuten tratua.

Lizeaga-Ertzilla
gaurtik izan dedilla
zorian-kabi goxua...!
Ezkontza zuzen daramatenak
izango dute zerua.

Epeleko'ren atsegin dira
txoriak kantuz begira,
Urumea'ren laztana eta
eguzkiaren dirdira...
Ernani ta Orio
daude poza-jario,
ar-emanetan erdira...
Pelotariak arku egiñaz
ongi-artzeko zai dira...

EZTAIAK ELIZONDO'N

1976

Milla beatzireun irurogei ta
amaseigarren urtean,
Ilbeltzak iru ditualarik
Lekaroz ikastetxean

Karmen da Joxe Mari
alkar maitez opari
dirala kristau legean...
Oien itzaren lekuko gera
denok aldare-aurrean.

Zintzo maitatzen bizi nai dunak
bear du zenbait lokarri,
oietako bat ezkontza baita,
gizartearen ongarri.

Joxe Mari ta Karmen
batuak ez izanen
lirake biotz-elbarri...
Alkar maitez arinduko da
ezkonberrien uztarri.

Bere garaian osatzen ditu
sagarrak mami-azala,
tolarearen ardatzak jota,
edari goxo duala...

Zuen amets urdinak
aspalditik eginak
Jaunak egizta ditzala...!
Seme-alaba ugariantzat
izan euskaldun itzala...!

Ez dira danak ixkanbilla ta
joera txarrak munduan,
ezkonberriak bedeinkaturik
daude aldare santuan.

Donosti-Elizondo
alkartu gera ondo
esanaz: Urte askuan...!
Gero betiko ezta ederrak
bildu gaitzala zeruan...!

DON JULIAN REZOLA

Ezti goxoarekin
bilduz beazuna,
negar-bidean dabil
gure maitasuna...
Añorga'ko auzoak
bere aita zuna,
orra gaur eriotzak
eraman diguna.
Emen utzi du ezin
beteko utsuna.

Auts bedeinkatuaren
inguru guzian
ongillerik maitena
genun Don Julian.
Inoiz purrustaren bat
jotzen ba zekian,
bai ongi artu ere
urrengo aldian,
ordaingarri onenak
dezaken neurrian.

Guda sortu zanean,
gorrotoz itxua,
odol-zaleen aurka
jaso zun eskua,
Geldi emen...! —esanaz—

Tori zementua...!
Geroztikan Añorga,
autsez esitua,
pake-barrutia zan,
ezkuta-lekua.


Nagusiak dunean
gizarte-itzala,
txapel berak jazten du
langille apala.
Etxez-etxe joaten zan,
denentzat zuala
bai onginaia eta
bai esku zabala.
Aren biotz-indarra
etzan, ez, makala.

Gure portlan-autsetan
jaio ta bizia,
etzan kapitalista
gose gelegia;
lanean zuzendari
burutsu, argia;
familien poza ta
miñ-azterkaria;
asko zezakenetik
eman-iturria.

Añorga'k eman ditu
 korrikalariak,
 pelotari, txirrindu,
 ostikalariak,
 zortziko abeslari
 eta dantzariak.
 Denentzat izan dira
 eragingarriak
 erri-zale onetxen
 arreta biziak.

Etzan geldi bultzaka
 bear zan guzia,
 ikusi zuan arte
 jantzirik erria:
 Eliza, eskola ta
 frontoi estalia,
 jolas-etxearekin
 zine-antzokia,
 ostikalari-zelai
 ta bola-tokia.

Miñez alkartu gera,
 eliza betean,
 Karmengo Amarekin
 denok otoitzean.
 Don Julian'ek orain,
 zorio-bidean,
 laguntza nai du eta,
 gatoz indarrean:
 Jaunak artu dezala
 zeru ederrean.





Eliza



NERE MEZA-BERRIAN

Aldare-bordatxoan
 Artzai Ona det zai,
 Bere artzai-makilla
 neretzat eman nai...
 Apaiz egin nau eta
 beartsuen anai,
 itxuen argi-mutil,

saminduen alai...
 Ardi galduen billa,
 gau t'egun da nunci,
 irrintzika bear det
 mendiz-mendi jarrai.
 Zeruko barrutian
 egingo degu jai.

ZURRUNBILLOAN OYUKA...

Elizaren ikurriña,
 maite-lokarriz egiña,
 ez degu bear zikiña...!
 Berrionaren egia bait da
 kristauak bear dun griña...
 Zenbaitentzako da miña
 gure ixildu-eziña.
 Gorria ez da urdiña...!

Errizaleak bait gera,
 gurutzedunak gaiñera,
 maite degula euskera.
 Etsaiak datoz Fedea eta

Euskalerria galtzera.
 Gabiltzan erne aurrera;
 euskal-fededun bandera
 ez da galduko, bai zera...!

Gure artalde gaixua
 barrutian da lotua...;
 larretik otso-marrua...
 Artzai Onaren irrintziakin
 etsaia dabil nastua.
 Gezurra ba'litz zerua
 erosiko dun dirua,
 a zer nolako tratua...!

BATELTXOĀ KULUNKAZ

(Ondarroa'ko arrantzaleak eskatuta egiñak)

Bateltxoā kulunkaz
 itxas urdiñean,
 gaba igaro ondoren
 alperrik lanean...

Arrantzaleak goibel
 datoz arraunecan;
 irri-parrez begira
 Jesus baztarrean.

Jaunak piztu du aien
 aula zan fedea:
 —Goazen itxas-barrura,
 zabaldu sarea...!
 —Arrai bat ez dabil gaur,
 alperrik joatea...,
 baiña beteko degu
 zure agintea.

Lema zai zutitu da
 Jesus agintari,
 Andres anaiarekin
 Simon arraunlari.
 Obeitu dutenean
 dezaken itzari,
 sareak lertzen datoz
 arraiak ugari.

Batelak ezin artu
 ango arrai-pilla
 eta oyuka dira
 laguntzaren billa.
 Ontzi biak gairiezka
 dakarten murgilla
 arrigarria denez,
 ikusi dedilla...!

Pedro izutu da ta,
 belaunikatuaz,
 dio: —Pekatori naiz,
 nigandikan zuaz...!
 Arrai-tresnak utzi ta,
 bularrean juaz,
 guztiak Jesusekin
 betiko dijuaz...

Galile-itxasoko
 garaian bezela,
 poparian da gure
 fede-dun batela.
 Kantauri gaitzaren
 arrantzale gera,
 Jesus, bedeinka gure
 aurtengo kostera...!

Izurdeak arraia
 irentsi bear du...
 Etsaia urbil da ta,
 dezagun erregu.
 Sarri egiñagatik
 itxasoak orru,
 babes onean dauka
 Jesusek Ondarru.

MEZA-BERRIA IGELDO'N

(Zamora-Arrillaga'tar D. Valentin)

1.

Jainkoak lur onean
 egin du ereintza,
 goxo-goxo emanaz
 zeruaren intza...
 Loretegi ederrak
 Igeldo deritza;


an erne da gizonen
 alde apaizgintza,
 biziki dakarrena
 fedearen mintza.
 Arengandik jaso ta,
 txestatzen gabiltza
 Jainkoaren itza.

Egilleak sortu du
 iñungo gai ona,
 argiz jantzi ezaren
 illunpe sakona;
 andik berezi du gaur
 apaiztuz gizona.
 Kezketan dator eta,
 neke du egona,
 ari-ariz zabalitzen
 bait da Berriona,
 munduari argi ta
 gero zoriona
 emango diona.

Erriaren alde da
 apaizaren grina,
 poz-aldian pozkide,
 min du aren miña;
 erruen barkatzaile,
 damutan bagina,
 aldarean kittotuz

ordaindu-eziña.
 Apaiz berri, ba dezu
 aski zeregiña.
 Geroak esango du
 ote zeran diña.
 Tu, jo alegina...!

Bizibidea zendun
 erreza benetan,
 kes-aulki ederrean
 diru-kontaktetan.
 Ongi ziñan lekutik
 zatoz eskutsetan,
 nurgilduz gizarteko
 ixkanbil neketan...?
 Zordun joko zaitugu
 arazo danetan,
 aín artzeko izanik
 zabiltzan bidetan,
 geigo zeruetan...



JOXETXO ALDAREAN
(Zamora-Arrillaga'tar D. Jose)

Mendizorrotz'en otea lore,
Etume'n erromerua...
Lili gardena
maite duena
gaur Igeldo'ra dijua,
an loretu da zerua.

1

Intzentsuz lurrindurik,
eliza loretan...;
erriak billera du
zeruko atetan,
onginai-giro eta
zorion-kantetan.
Meza-Berriarekin
auzo au benetan
ez da gaur ttattarrena
euskal errietan.

2

Gaurtik zor-artzekoak
ikus aldarean,
ardo-ogiak opari
goren biurtzean...
Ezkutuko indarrak
dituzu soñean,
Jaingo-atsez artuak
misteriopean,
nunai erabiltzeko
maitasun-legean.

3

Zenbat ustel-jario
dan zure bidean...;
gaurko txaloak biar
dituzu kaltean,
Erramu-irrintziak
etsai biurtzean...
Zere urkamendia
ikus aldarean,
etziñake bestela
Kristo gurutzean.

4

Kristo gurutzean bai,
sarri ebaindua,
dezu apaizgoaren
kosta preziyua.
Bikaiña baita berak
damaigun eskua,
lortzeko zerua.
Nolako neke-lanak,
gizartea onduaz,
alako frutua...

Mendizorrotz'en otea lore,
Etume'n erromerua...
Lili gardena
maite duena,
gaur Igeldo'ra dijua,
an loretu da zerua.

AÑORGA'N MEZA-BERRI

(Nere erritar Jose Antonio Pagola Elortza'ri)

1961-VIII-15

Auzoak dirudi gaur
 zeruko atari.
 Eliz-bidean zenbat
 uso egalari
 diruditen biotzak
 datozen eskari,
 Jesus'ek aldarean
 damaien janari.
 Bat eskura joan zaio
 Jesus-Apaizari,
 ta Berak luzatuaz
 eskukada gari,
 Josetxo deitu dio
 uso maitenari.
 Ta gu txalokari...

Añorga'n giro da gaur,
 bai arranopola...!
 Itzal ederrez eta
 poza dariola,
 or degu aldarean
 Josetxo Pagola...
 Leenik sakondua du
 Berrion-eskola,
 gaur opari Jaunaren
 Aragi-Odola.
 Aingeruak inbiriz...?
 Etzaio ajola.
 Gaurtik Karmengo Ama
 bai pozik dagola,
 bai arranopola...!

Aginte osoakin,
 zer-egin ugari
 Jainkoak eman dio
 zugan apaizari:
 Oben-porrokatzaile,
 zorion-giltzari;
 maitasun-ereinketan
 bear dezu ari.
 Gizadiaren alde
 amaika mirari
 egin-arazi ere
 Guzialdunari,
 izalduatuz biko
 mezaren opari;
 amaika mirari...

Erri guziaz dezu
 gaur zuri begira,
 zugan dakusalako
 zeruko dirdira.
 Giza-gogoak arin,
 aldakorak dira,
 biar jarri litezke
 gaiñekoz azpira,
 gezur-egiak nastuz
 deabru-mugira...
 Zure apaiz-biotzak,
 besarkaz lurbira,
 dena bildu dezala,
 jira eta bira,
 Kristoren argira...!

PAZKO-EGUNA

Pazkoetan du Jesus'ek
bere itza egiztu,
irugarren egunean
illen artetik piztu.
Artzai Ona gurekin da
irrintzi eta txistu...
Salbatuko gaituala
bear degu sinistu.

Berri zoragarria da,
pozik artu deguna,
piztu dala Jesus, gure
pekatuak il zuna.
Aleluiak berritzen du
gure fede illuna,
euskaldunen lege zarrak
eta Aberri-eguna.

Fedeak mundu onetan
ba ditu milla etsai,
oien loturak autsi ta
bizi gaitezen ernai.
Laguntza bear danean,
Kristo da gure anai,
alkar maiteaz dezagun
pake santuan jarrai.

EKIN...!

Pentsakizunak ez du
osutzen fedea.
Okerrak ikusi ta
ixill egotea,
ez da kristau eta ez
gizon izatea.
Egiari loturik,
alegin zaitea,
ez bait da ongi, dana
baietz esatea.

Indarra lege dala,
egia lurpean,
zuzentasunik ezin
leike gizartean.
Iñor galdu ez dedin
gezurren sarean,
lokarriak askatzen
saiatu gaitean,
zintzo borrokatuaz
kristau-elkartean.

MAITA BEARREAN...

Jauzika garamazki
 munduak curreira,
 gurdian pillatuta
 denok urkatzera.
 Gizartea zanean
 arrastako lera,
 goraka ezin eta,
 zihoan gain-bera,
 eman zitzaion arte
 maitasun-bultzera.

Gaur egunean mundu
 zoro au dabilla
 armak zorrozien eta
 gora ukabilla.
 Gizarte-gurdi onek
 bear dun kurpilla,
 alkar maitatzea da;
 goazen aren billa,
 ala ezik, leizean
 laister degu illa.

HIPONA'KO ARRANOA

Afrika illunean
 sinismen-argia
 zabaltzen ari zala
 Kartago uria,
 inguruan jaio zan
 Agustin aundia,
 jakin aundieneko
 teologaria.
 Gaztetan oker dabil
 seme biurria,
 egiñik negar-bide
 amaren bizia,
 maitakeria bait du
 griña nagusia.
 Monika'ren otoitzak
 orra miraria:
 Seme galduak utzi
 du lizunkeria,
 eta kezka bat dauka:

Kristoren egia.
 Urduri zebillen bein,
 gogoz alegia,
 atzi naian lurretik
 zeruko gaindia:
 Jainko Irutasunak
 bateko neurria...?
 aintzalduen ase-gai
 dan ezkutukia...
 Norbaitek sartu dio
 etsipen-ziria:
 —Zure buru-austea
 da parragarria:
 Ondar-txuloan bildu
 itxaso guzia...?
 Eziñezkoa baita
 dezun ausardia,
 Hipona'ko Arrano
 goi-egalaria...

IL-ZORIAN

1972-XII-10

Aize-boladak emen
 astintzen gaitu maiz...
 Teillatu-egaletik
 zintzilikatu naiz,
 eta erioi maltzur
 esan dit: —Emen aiz,
 amiltegian bera,
 Igeldo'ko apaiz...!
 Baiña Jainko-Ärretak
 atxiki du garaiz
 onoko zapelaitz...

Eriok berea du
 giza-erailketa,
 ala baiña Jainkoa
 nagusi du, eta
 Ari nai diot ordain
 damakidan beta:
 Gora etengabeko
 Jainko-ariketa...!
 Naizen giza-txar oni
 diozun arreta,
 ez da berriketa.

SAN ISIDRO'RI

San Isidro da nekazarien
 ikasbide ta Zaindari;
 otoitzarekin zintzo jarraituz
 ekiten zion lanari.
 Baserritarrak maite degu ta,
 pozikan gatoz kantari;
 udaberriko emaitzak dira
 dakazkiogun opari.

Zaindari maite, arindu zazu
 nekazarien goibela...
 Gure nekea ez da saritzen
 beste lanetan bezela...;
 baso, belardi eta soroak
 frutu ematen duela,
 zuzendu auen salketak ere,
 galduak gera bestela.



ALDARE-MINTZOA

Aldare-maian ematen zaigu
 Jaungoikoaren jakia;
 etzaio uka iñori emen,
 danentzako dan ogia...
 Orra or Jaunak eskeintzen digun
 maitasunaren neurria...
 Itzalpe ontan bildu dezagun
 pakea nai dun erria.

Esker ona da ongilleari
 zor zaion giza-legea.
 Jaungoikoaren mesedeari
 eman nai diot berea...
 Nola eskeiñi Jainko Aitaren
 diña dan neurri-gabea...?
 Berak eman dit Eukaristian
 opari bete-betea.

Iturri otza nai du basauntzak,
 erleak lore-kolkoa...
 zorion-miñez bizi geranok
 egarri degu Jainkoa.
 Gezurrik ez dun billera onek
 damatigu alkar-giroa;
 aitzaki danak utzita, maita
 dezagun lagun urkoa...

MILLA ESKER, YOKIN

1946

Nere adiskide Dorronsoro'tar yokin
 apaizari

Goi-egarriz dabizkik
 oiñak eta buru,
 azi ona ereiten
 inguruz-inguru...
 Erpin-zale aiz, eta
 ba zekit seguru,
 zerua dek maitena,
 gero, Leaburu.

Kristoren bidaliak
 kalte dik egona,
 zabaltzekoa danez
 nunci Berriona.
 Zuzpeltu dek biziki
 emengo gizona,
 zeru-intza ederren
 bearrez zegona.

Agur, nere lagun zar
Dorronsoro Yokin;
zozatu dek Igeldo
ire jardunakin;

bildu dituk ardiak
bere artzaikin.
Ez diat kalte izan
mixiyuarekin...!

APAIZEN AMAIRI

Donosti'ko Eukaristi-Batzarrean
1946-Orrilla

Egun auetan alai
degu Donostia,
Eukaristiko lorez
dotore jantzia.
Maite-giroz bildu da
fede-dun guzia,
kale apainduetan
euskal-baserria.

Zeruak, men egiñaz
apaizen itzari,
Jainkoa eman digu
gizonen janari.
Amak semea bait du
aldare-opari;
gure senide Jesus,
eskerrak amari.

Ikusi det apaiza
sarri gizartean
itxuen argi-mutil
gau beltz illunecan...
Antsiz baztarrean
elbarrien otsa,
ta aiek argitaratzen
amaren biotza...

Ikusi det apaiza
jetxitzen leizean,
ta amildua jasotzen
maitez bizkarrean...
Etixeratutzean,
gaueko izotza
legortzera joan zaio
amaren biotza...

Ikusi det apaiza
beartsu eskean,
odol-neketan ere
sarri gurutzean...
Ta bere aldean
zotinka mingotza,
odolez busti-naian
amaren biotza...

Kristo, Apaiz-Nagusi
zaitugu munduan;
amak ez du kalterik
Zu sortutakuan,
goineretua bait du
alkia zeruan.
Apaiz-lanetan amak
zer garrantzi duan...!!

Esker-oneko biotz,
 ba dezu abes-gai,
 apaizen ama nor dan
 zabalduaz nuna!...
 Senide-Alkartean
 esango det alai:
 Zuek aizpak zerate,
 apaiz denok anai.

Zeruak damaizkie
 onespen ugari
 Kristo berriak emen
 sortu dutenairi...
 Ixilkaiak azaldu
 ditzagun kantari:
 Aintza Gipuzkoa'ko
 apaizen amari...!!

GAURKO APAIZARI

Gezur-egiak dute
 astintzen mundua;
 bat eta beste dabil
 aldiz gailendua,
 kutsatu ta nastutzen
 Eliz-ingurua.
 Egiak artu dezan
 garai dun lekua,
 jaso bearko dezu
 gurutze santua,
 makurtuz burua.

Gure garaian etzan
 apaiza edozein;
 txalo gozoarekin
 Berriona erein,
 eta erriak ondo
 artua beñepein.
 Orain esku-lanetan
 dabilkigu otsein;
 dezaken baiño geigo
 bear bait du eskein.
 Etsi dezala bein...!

Txapela erantziaz,
 burua makurtu,
 eta esku-muñakin
 bear zan agurtu.
 Ez ote zan orrela
 geiegi limurtu,
 mito-legean aundi
 gizona biurtu...?
 Ori du gaur apaizak
 dana jo ta apurtu.
 Zergatik uzkurtu...?

Agurgarri, errien
 goi-mailletan zegon,
 Fedearen emaitza
 guzien itxaron.
 Orain, ostikatua,
 ez da lengo gizon;
 ala-baiña oberik
 bai ote da iñon...?
 Argi-mutil zaio ta,
 erriak beti on,
 lagundu dakion...

Ixilkari zerala,
edo ta iztuna;
goikoen adiskide,
bekoen laguna...?
Garaikeri jotzen da
gaur zure jarduna;
zorigailtz eta kalte
danen erruduna.
Ori da zigor latza
etorri zaizuna,
apaiz euskalduna...!

Jainkoaren begiko
da zure nekea;
ez dizu sarituko
il arte ordea.
Esker-ona dalarik
gizarte-legea,
ezin esango dizut,
ikusiz nerean,
lasaigarria danik
apaiz izatea,
mingarritz betea.

Lengo aulki xarrean
etzindezke jarri;
autsirik or ziñake
lurrean elbarri...
Munduan dabillena,
kezkatu ta larri,
gizonak zuzenduaz
maitatzen alkarri,
uraxe du Jainkoak
apaiz agurgarri.
Gogoratu sarri.

Kristok sortu ezikan
apaiz-lanbidea,
nun da nola litzake
nai degun pakea...?
Gorrotu-eragiñak
dun indar-legea
austeko gai da zure
biotz-adorea,
zeru-lurra alkartzen
dituan Fedea.
Ta saia zaitea...!

ZIGOR-LANA APAIZARI

Madrid'tik asi dira
jotzen damboliña,
askatasun-ametsen
txiripizitiña...
Idazle lotuentzat
dakar atsegiña
esateko karaitza

ez dala bustiña.
Egiaren griña
azaldu eziña
aspaldiko miña
nuan ta, jakiña:
Ezin txalotuko det
gaizki egiña.

Donosti'ko alderdi
atsegin batean
apaiza jarri dute
auzo-lanean.

Lanak kalterik ez du,
bildu diranean
apaiz ta sekularrak
asmo zuzenean...

Baiña indarrean,
utsaren trukean,
legea oinpean
nola litekean...?

Adar-jotzaillea da
bere kaltean.

Guardi bat ate-joka
bi apaizengana
agindu zorrotzakin
degu izana.

Alkateak bete du
aspaldi esana:
"Izerdiakin busti
dedilla sotana...l.

Maltzurren laztana
zaie gaur emana;
gero aitzur bana,
orra zigor-lana,
Rusi'ko Siberia'n
gertatzen dana.

Erri-lanak apaiza
beartzen dutela...?
Lege-ausleak ez du
izan kartzela.

Apaiza lantokian
mintza zan onela:
—Ez uzte zigor-miñez


etorri naizela,
baizikan onela
aitzur ta kandela
batu ditezela,
senide bezela.
Etzaio ez oiñetan
lertu ospela.

Zertarako gai duan
ikusita gero,
apaiza jarri dute
karretillero.
Irurogei urtetan
urbil dan ezkeru,
ezin leike gizona
lanpetu ziero...
Ala ta zain-bero
dabil egunero.
Ainbeste salero
dezaken obrero
eliz-gizonetatik
etzan espero.

Arri-tartean trakets
ibilki pausua,
txankotilletik dago
minberatua.
Arlatzean oztopo,
euriz labaindua
zagon tupa-gaiñetik
irristan dijua...;
sotana loitua,
babetan eskua,
musu-gorritua,
ez ola oitua
aldare-serbitzari
bedeinkatua...

Utzi kazareñuak,
 jun apaizen billa...,
 merkezur lanerako
 au da mutilla.
 Sermolari jauntxoak
 lanean ixilla
 ikusi nai duena,
 etorri dedilla.
 Palaketa milla
 botatzen dabilla;
 bete karretilla,
 eramcan lur-pilla...
 Baztarretik begira
 guardiazibilla.

Apaiza degularik
 langille merkea,
 kaltegarri da oien
 borondatea.
 Utsean artzen ba du
 Elizak nekea,
 nausia poztuko da,
 ondatu pobrea...
 Apaizak berea
 dute lanbidea.
 Ez al da ohea
 errespetatzea
 bakoitzak artu duan
 bizi-legea...?



BI GAU MIKROBUS BATEAN

ARUNTZAKOAN

Egi-zaleok eskatzen degu
zuzentasuna...
Zigorrak jo du abade zintzo
ta euskalduna.

Etsaiak gure
anai onari
eraso dio
arrika...
Zurekin gera,
Gabika...!

Gogoan izan lengo martiri
aien odola...
Kristoren itzak indarrik ez du
ixil dagola.

Etsaiak gure
anai onari
eraso dio
arrika...
Zurekin gera
Gabika...!

ONUNTZAKOAN

Madrid-aldetik Euskalerra'ra
gatoz jauzika,
Elizarekin garai degula
beingoiz Gernika.

Etsaiak gure
anai onari
eraso dio
arrika...
Zurekin gera,
Gabika...!

Gauaren urren alaiagarri da
egun-sentia...
Alkartasunak argituko du
Euskalerra.

Etsaiak gure
anai onari
eraso dio
arrika...
Zurekin gera,
Gabika...!



SORTZEZ GARBIARI


(Seminario-Egunean)
Radioz

Ama Sortzez Garbia
zeran Andre Mari,
aingeruz bear nuke
mintza gaur kantari,
zure jai-egunean
natzazun opari.
Zorrak arindu nai ta,
kezketan naiz ari,
ez bait dut eskeintzeko
nai bezin ugari,
ene Andre Mari...!

—Eman nai ba didazu
neri atsegiña,
Apaizgoaren alde
otoitz alegiña...;
ekatzu nekearen
xorta krabeliña;
gaixo ba zera, bildu
gaitzaren samiña.
Apaizaren zer egin,
neretzat egiña,
laztan da musiiña...

Apaiza det, Eleiza
jaso dun argiña;
nere Seme Jesusen
senide berdiña;
berak zuzentzen dizu
okerreko griña,
berak ernetu ere
Jainko-maite-miña.
Apaizari zer egin,
neretzat egiña,
txalo naiz musiiña...

Jesus nere Semea
or da zure billa,
gaur eskale-antza dun
apaizgai mutilla.
Biotzarik daukana,
azaldu dedilla,
eman beartsu oni
maitasun-opilla...
Jesus nere Semea
bait da, zure billa
dijuan mutilla.



TXORI LEPO-GORRIA

Seminario-egunean

Radioz 1940

Goiak elurtu dira,
 artaldeak bera...;
 neguaren igesi
 dator egabera...;
 bide-erdian txioka,
 eskale-antzerak,
 txantxangorria otzak
 baserri aldera...
 Abenduan gera.

Txori, atoz, etorri
 gure aterpera...!
 Berokak indartzean
 zoazke osterak
 zabiltzan inguruak
 kantuz alaitzera...
 Txori lepo-gorria,
 zatoz berotzera,
 gurekin batera...!

Apaiztegitik dator
 txorien dearra...;
 kabian ogirik ez,
 billatu bearra...
 Elur-gaiñetik otzak,
 oinkari azkarra,
 gose-igesi dabil
 txori eliztarra,
 Jesusen maixtarra.

Bitori'an daukagu
 apaizgai-etxea...
 Apaiz-ikasten antxe
 bizi dan gaztea
 eskean datorkigu;
 zabaldu atea,
 ase dezan kabiko
 ancien gosea,
 eman poz-alea...

Mutiko gazte orrek,
 apaiztu ezkerok,
 guretzat egingo du
 otoitz egunero;
 gizon eta kristauki
 osatuaz gero,
 eutsiko dio gure
 fedeari bero,
 apaiztu ezkerok.

Euskalmendiko txori
 lepo gorrikua,
 arindu bai kabiko
 ancien negua...!
 Gurean berotuta,
 zoaz asetua,
 eramán Bitori'ra
 gure eskupekua.
 Guk zuri alea ta,
 zuk guri zerua,
 euskalmendiko txori
 lepo gorrikua...

MIXIOAK IGELDO'N

1956-III-4

Mundua du gizonak
irrixta-lekua,
oker-bidean sarri
galtzen du burua...
Nora jo bear det nik
billaka zerua...?
Igaro al dezadan
bide illundua,
argitzera datorkit
mixiyo santua.

Gizona kaxkar dala,
ote da gezurra...?
Ezin geldi aurtengo
jela ta elurra...;
piñudiak igartu,
gorritu da lurra,
alperrik dantzatu du
soroan aitzurra...
Jainkoak ez al digu
ematen bildurra...?

Kristo ez datorkigu
ez denbora-pasa...
Entzun dezagun bere
nekien amasa,
zuzenduaz diogun
arreta eskasa;
mixioen jarduna
ez baita jolasa.
Ongi etorri Aita
Garate ta Lasar.

Gizona nundik dator,
ta nora dijoa...?
Munduko izaera
ez da betikoa.
Gure barruko arrak
ari dun leloa:
Eriotza, Epaia,
eta Jaungoikoa...;
oiek osatzen dute
gizonen geroa.


Eriotza ba dator...
eta ni kezketan;
kontu eman bearra
Kristoren oiñetan...
Justiziak azaldu
bear du benetan,
sententzia emanaz,
eta ez txantxetan:
Betiko poza, edo
betiko penetan...

Atxiki-naian gabiltz
zorion-pittiña,
limurketan algaraz
jun zaigun sorgiña...
Artzen ba degu zintzo
zerurako griña,
an iritxiko degu
lurrean eziña:
Gozamen betea ta
pake-atsegiña.

BUKAERAN

Mixio santu onek
utzi gaitu alai,
azpiratuaz iru
animaren etsai;
oien aurka ta erne
bear degu jarrai...
Orain pake santuan,
alkarren ongina,
artzaiaak ardiakin
egin dezagun jai...!

Artzai Ona galdezka
degu atez-ate:
Emandako itzaren
jabe al zerate...?
Aula baita gizonen
ziña ta izate.
Agur, eskarikasko,
Lasa ta Garate;
gure oroipenetan
beti zabilzate.



LUZARBE GOGO-JARDUNETAN

1973 urtean

Teki atsegiña da
Luzarbe auzoa,
Igeldo-mendiaren
bizkar ta lepoa...
Goian Kuku-Arri du,
beian itxasoa;
dala eguzki-aldi,
dala erasoa,
Jainkoak dio Bere
arreta osoa...

Jesus Artzai Ona da,
makillik gabea;
irrintzi gozoakin
bilduz artaldea,
iriki digu bere
bordako atea.
Bera gurekin dala,
ez baita luzea
Luzarbe'tik zerura
dijoan bidea.

Gure kalte bakarra
degu pekatua...
Luzatu dit Jainkoak
barkapen-eskua,
eta nik esker txarrez
ukatu damua...
Okerrak zuzentzeko
ba dala ordua,
azaltzera datorkit
mixio santua.

Indarra lege dala,
egia lurpean,
zuzentasunak ez du
leku gizartean.
Iñor galdu ez dedin
gezurren sarean,
lokarriak askatzen
saiatu gaitean,
zintzo borrokatuaz
kristau-alkartean

Egiari lotuta,
sendotuz fedea,
askatasun-ekintzak
bear du nekea,
zuzentasun-indarra
ta begirunea.
Okerrak ikusita,
ixill egotea,
ez da kristau eta ez
gizon izatea.

Bizi-berritu gera
oraingo aldian
Jaungoiko-Graziaren
iturri garbian...
Lagundu al ba neza,
bear dan guzian,
deitu-zai naukazute
Igeldo errian
zuen serbitzaria,
Loidi'tar Fabian.

LARREA'KO AMABIRJIÑA KOROITZEAN

Bizkaimendi-altzoan
Zornotza'ko uri...
An Larrea'ko bordan,
artalde iduri,
ezitu dira milla
fraide kapa-txuri.
Artzai Karmengo Ama,
gau t'egun urduri...

Lorez txuri-gorria,
bedarrez orlegi,
an-emen baserriak
euskal-bitxitegi...;
oiñetan Ibaizabal,
malkoen biltegi...
Orra gure Amaren
maitasun-jauregi.

Barruti-bizkarrean
Larra komentua
da zeru-bidea ta
fede-gordairua;
aulak indartzen diran
osasun-lekua,
antxe sendatzen bait da
biotzez mindua.

Ezin-batuak dira
gaua ta eguna,
ezin gaztelera ta
Aitorren jarduna...
Arrotzak il ez dezan
gure nortasuna,
piztu ta zaindu, Ama,
erri euskalduna...!

Gizadi aundinaiak
Marte du Jainkoa...;
elorri-arantzetan
lore gorrotoa...
Guda-borrokak sutu
dunecan auzoa,
ezti-baratz izan da
Larra'ko muñoa.

Andik Amabirjiñak
eman digu dena,
miñez dagon biotzak
eska dezakena.
Uraxe da erriak
koroitzen duena,
merezi dualako
Erregin-Omena.

Urre gorrizkoa da,
gogoz osatua,
erri eskerdunaren
opari santua;
Bizkai'ko suteagian
biotzak landua,
pakeak lotu ditzan
lurra ta zerua.

**ERRAMUN BALERDI TA LAGUNAK,
BEJONDEIZUELA..!**

Igeldo'ko erriak
aspaldi jarrita,
Erniyon tinko zegon
gurutze polita.
Ura hota duena
nor degu, tximista..?
Ez dezagula juzgu
txarrakin irrista.

Erniyo-tontorrean
berriz zutikan da
erriko gurutzea
lepoz eramanda.
Neketsua dalarik
kalbario-landa,
jator egin dezute
Zireneo-txanda.

Bide luzea bai zan,
pike ta lakarra,
burni astunarekin
urratuz bizkarra,
aitz-zuloan zutituz
tinkatu bearra.
Nekeak ez du autsi
setaren indarra.

Gurutzeak nolako
itzala damaigun,
nekabide auekin
ez al da ezagun..?
Griña oien taldeak
ditu beatzi lagun,
guzi oiek zein diran
izenda ditzagun:

Uranga bi anaiak,
Kruz, Martiarena,
Eskudero, Arruti
eta Mitxelena,
Olasagasti'rekin
da beatzigarrena
Balerdi, damen buru,
bultzaka zuena.

Iturriotz'tik gora
Zelatun bide-erdi,
Erniyok jaso ditu
amaika izerdi...
Erriko txaloakin,
Erramun Balerdi,
Uranga ta bestei
esker milla t'erdia..!

 Gaillurretik onuntza
zuzenduz dirdira,
fede-orratza degu
zutikan begira.
Esker-ona ez dezan
egin jira-bira,
muñ ematera goazen
Erniyo-mendirra.

XALBADOR'EN ARGI-OLA

Lurra da gezur-ontzi
eder borobilla;
ortzean piririka,
gau t'egun dabilla,
barruan daramala
giza-ixkanbilla,
alkarri tiroka ta
pakearen billa,
itxu-itxu dantzatzuz makilla.

Giro txarrean ere
ba dira ordea
zintzo daramatenak
maitasun-legea.
Ala bait zan Xalbador,
bertsotan trebea,
mundu nastuan zintzo
aitortu zalea,
gurutzean dargola pakea.

Aren mintzo biziak
zuten ibil-bira,
begiak itxi eta
biotzez begira,
txapel-azpitik jaulkiz
ziñadun dirdira,
biziki ernetuaz
errien intzira,
bear ainbat txalotu ez dira.

Euskera barrenduaz,
jator zan mintzari.
Asarre-izpiren bat
zanean nabari,

laztan-iturria zun
biotzetik ari.
Xalbador zan oroz gain
pake-mezulari,
alderdi guzietan kantari.


Ala bearrez jo du
il-kanpaiak din-dan...
Euskalerrri guziak
ba daki nor il dan.
Txori kantariena,
nora zoaz egan,
ez al dezu giro onik
arkitu guregan..?
Negarra galdezka da errekan...

Aldizko diralarik
gaua ta eguna,
luzeki gelditu da
gurekin illuna,
eriotz onek beingoz
erantsi diguna.
Nunbait zeruan ere
ba zegon utsuna,
Xalbador'ek kantuz bete duna.

Miñez daramagunok
euskaldun odola,
ezin itzali degu
aren argi-ola.
Txoriak utzi bait du
munduko kaiola;
goi-argietan aske,
poza dariola,
etzaigu ixilduko iñola.

Etxe-zulo aundia
utzi digu keetan;
ala baiña fedeak
erran digu bertan,
kantari dabillela
zorion-egetan.
Bere olerki eta
bertso berrietan
biziko gera gu sekuletan.





Errizaleak



TXAPELA

(1974)

Euskaldunen buruko
estalki maitena
xapal borobilla da.
Erdian txortena
dauka nabarmena,
txapelaren ederra
osatzen duena.
Ura eten ezkeru,
galdu du kemenen,
bizigarriena...

Nola du baserriak
etxegain zabala,
kerizpea damaion
teillatu-egala,
aundizki apala...?
Euskaldunen buruak
babesa du ala,
txapelakin dotore
abenda-itzala
gordetzen duala...

Euri ta oz-beroa
aterpe goxoa...
Jatorki eratzen du
gizarte-giroa,
goiko ta bekoa;
nagusia ren maillan
jarriz mendekoa.
Erantziak berekin
du errespetoa,
neurri betekoa.

Jarrerak dio nor dan
jator, nor txepela;
leiaketan jazten du
garaille zimela,
erraldoi bezela.
Gazteak asarrean
burruka dutela...?
lenik gordeko dute
kolkoan txapela,
galduko bestela...

Erri baten agiri
xume ta panpiña,
barruti guzietan
ibiltzeko diña,
zindo-ikurriña...
Txapelak biltzen gaitu,
piztuz erri-miña;
adiskide biurtu
piakaitz musiña,
baretuaz griña.

Txapelaren errege
degu Elosegia;
foruen txapelaundi
Zumalakarregi,
ta zenbat gudari...
Beltza dala, gorria,
edo ta orlegi...
koloreak ez baitu
bereizten geiegi
jatorren arpegi...

Txapela, euskaldunen
mezu ta bandera,
daramazu, Tolosa,
mundu zabalera,
dotore gaiñera...

Euskal-barrutiaren
gaztelua zera...;
txapela buruan ta
mintzaki euskera,
jo beti aurrera!

PELOTA-JOKOA

Pelota da osasuna,
kirol berdiñik ez duna,
munduan txit ezaguna,
pelota da Euskalduna.

Ezin-geldi, borobilla,
ara-onerat dabilla;
txoko ta zabal,
utzi, eraman...,
pelotaria du billa.
Besagain jo ta,
bizi pelota,
ikutuakin txit illa;
dotorea du ibilla.
Euskalerra ta mundu guzian
pelota bizi dedilla...!

Bildu da jende ugari...,
jai ederra da nabari;
pelotariak,
txuriz jantziak,
ttunttuna dute izari.
Orra jauzika,
makur, zutika
bi ormetako azari,
aizken eder bat opari...
Begiraleak eraiki ditu
laran-larana kantari.

Aurre-atzera jo ala,
pelotak dirudi bala;
beso-palanka
tenk eta tanka,
ormak kolpatzen duala...
Jatortasuna
gizonki duna,
kementsu bezin apala,
ez da izanen makala...
Plaza jokoak galduagatik,
ura bai txapeldun dala...!

Soiñaren zati guziak,
senaren esku jarriak,
berezko dute
alai jardute;
ez du lekurik nagiak.
Ika ta mika,
gailen-irrika
dabiltza pelotariak,
txalo-irrintziz bultziak.
Jolas eder au gurea da ta,
maite du Euskalerra'k.

Gazte lirain da zimela,
ongi txalo zaitzatela...!

Jantzi dotore,
garaipen-lore,
pelotarien txapela.

Azpikeria
ez da saria
merezi duen jokera,
ez da garbia, bai zera...!
Beso, gerriak, begi ta oiñak
duna bear du atera.

"Pelota-Baska" izena
dabil munduan barrena;

bizi, alai ta
garbia baita,
ikusgarri dun kementa;

euskal-odola
onik dagola
adierazten duena,
dalarik odol zarrena.

Kiroletan bat autatzekotan,
pelota degu currena.

Pelota eskun duela
eta buruan txapela,
sarien billa
doan mutilla
txalogarria bai dela...


Apustu-zale,
asma ta kale
ausarti dabil txartela,
ustu ta bete sakela.
Zurrunbillotik kendu dezagun
kalte dan diru-orbela.

Indartsu, trebe, ariña.
pelotarako egiña,

Euskalerrí'ko
gazte, mutiko
guziak du plaza-miña.

Eskuzko dala,
saski ta pala,
jolas oberik eziña
erriak du atsegiña.
Itzal onakin jaso dezagun
pelotaren ikurriña...!

Pelota da osasuna,
kirol berdifiik ez duna,
munduan txit ezaguna,
pelota da Euskalduna.



PELOTA

Euskaldun jolasa

Auñamendi-lurretan
 da Euskalerria,
 gizarte berezi ta
 txikiz aundia.
 Bere auzo danetan
 du jolas-tokia,
 pelota-plaza, leku
 alai egokia:
 Orma soil garbia,
 aurretik jarria,
 legunki azpia,
 irristagarria...
 Antxe burrukutzen da
 pelotaria.

Mutikoak dakite
 pillotak egiten,
 ariz borobildu ta
 larruz ornitzen.
 Gero ezker-eskubi
 ara non dabilten,
 peloten igesiak
 zartakoz biurtzen...
 Aurrelarik jartzen
 dira zirikatzen,
 beste biak atzen,
 junak arrapatzen.
 Seta zoragarria
 dute moldatzen.

Deportean ba degu
 oraintxe aukera,
 indar biziarekin
 txoratzen gera;

korrika, bizikletan.
 ostiko-legera
 azaltzen du gizonak
 gai duan tankera.
 Pelota-jokera,
 ederrena zera,
 jatorriz gaiñera
 euskaldun-bandera.
 Txapel aundiarekin
 zabiltz aurrera.

Kirol osoa baita,
 garbi, dotorea,
 pelotarien indar
 bizi-trebea.
 Gerri-urdiñak mende
 lezake aurrea,
 indarrez geigo dala
 gorri kolorea;
 bateko sakea,
 besteko bolea,
 esku-aldatzea,
 pilpilka jendea...
 Aizkenak esango du
 zein dan ohea.

Elizkizun ondoren
 jai-arratsaldean
 gazteak bildu dira
 kontsejupean.
 Seta dabil Pello ta
 Txomin'en artean,
 pillotan geiena nor
 ote ditekean.

Alako batean
jo dute sakean,
zital-indarrean;
eta bitartean
ttuntuna txistuka da
enparantzean.

Txomin'ek bizi-bizi,
dantzatzuz besoa,
sartu dio Pello'ri
bigarrendoa.

Onek igarri dio
ari dun jokoan,
eta datorrenean
irugarrendoa,
besagaiñekoa
jo eta an dijoa
bi-ormetakoa,
egiñaz tantoa.
Orra uste gabeko
muturrekoa.

TXOMIN.—Ba zekiat nik, Pello,
ikusi dekela,
txapa-ertza jo eta
okertu dela.
Uste al dek agian
bestetan bezela,
ain errez jokaldia
emango ditela...?
Tantoa orrela
izamik ustela,
aitor zak, bestela,
gixajo ergela,
ez dek lanik izango
jazten txapela...!

PELLO.—I ni baiño geiago
pillota-jokuan
izango aiz Pello'rik
ez dan orduan.
Aitzekia dek beti
jokatzerakuan:
—Pillota motela dek,
min diat eskuan...
Arrazoi-moduan
diok ezezkuan,

uda ta neguan
beti gerokuan...
I bezelako asko
dituk munduan.

TXOMIN.—Irekin jokatze
bildur alajaiña...!
Ausarti galanta dek
ire mingaiña.

PELLO.—Aztu al dek neri zor
didaken ordaiña,
txapela-bete sagar
intxaur da gaztaiña...?
Jokaurretik maiña,
indar eta zaiña
dituk amar aiña...
I beti bikaiña,
gero, jokocan, ez aiz
irixten baiña.

TXOMIN.—Geiegi ari aiz ta,
euretzat galena,
laister ikusiko dek
nere kemena...!

PELLO.—Oillarra kukurrukuz
jartzen dek gailena...;
ba zekiat orretan
nagusi aizena...

TXOMIN.—Exkailu alena...!


PELLO.—I arro putzena...!

TXOMIN.—Ezetz baitu dena,
len esan dekena...?

PELLO.—Berriz esango diat:
Astakirtena...!

Txapela kendu naian
batak besteari,
lepotik eldu dio
borrokalari;
jo ta bai ere alkar
erantsi lurrari;
zillipurdika dira
indarrean ari,

ukabil-zartari,
atximur, oskari...
Aien ikuskari,
kilika xaxari
dira lagunak eta
ingurumari.
Txomin gailendu da ta,
Pello baztarrean
lotsetan dago lagun
danen aurrean.
Begiak larri eta
sua biotzean,
zutitu da mingarri,
txapela eskean.
Gero arkupean
danak jolasean
dabiltza pakean;
eta bitartean,
ttuntuna txistuka da
enparantzean.



AIZKOLARIAK

Leitza'ko basoetan
 aizkora tankari...
 Borrokaren gogoa
 degu nabari.
 Luxia'k, Iturrino
 izan aldezkari...
 "nor geiago" bota dio
 Martin naparrari.
 Plazaren eskari
 egin Tolosa'ri;
 ez-ta-bai ugari
 batak besteari...
 Aizkenik mesedea
 Donostia'ri.

Baso-gizona degu
 azaldu berria,
 Naparroitik egiten
 itzal aundia.
 Martin Gartziarena
 Leitza'r azarria,
 urtez ogei ta lauko
 mutil egokia:
 Trinko du mamia,
 azala gorria,
 biguna gerria,
 euskaldun garbia:
 Arrokeri gabeko
 aizkolaria.

Juan Joxe Narbaitza da
 Azkoiti'n jayua,
 Iturrino'k Eibar'en
 gobernatua;
 oitazortzi urteko

gizon indartsua,
 iya bi metro luze,
 sendo ta zaildua;
 balanka besua,
 atzapar eskua,
 sudurra kakua,
 nolako mirua
 oinpean menderatzen
 pago triunkua.

Donostia'n bildu zan
 Euskalerra dena,
 txalotzeko indartsu
 oien kementa.
 Plazan degu Luxia,
 naparra urrea;
 biak ekin diote
 berotzen aurrena...
 Ura itxumena
 jokalariena,
 auxe da geiena
 autan dabillena:
 Txapeldun irten baietz
 Gartziarena...

Enborraren gainean
 jarri da naparra...
 —ba dirudi kantari
 dagon oillarra—
 Egur ezean zutik
 josirik zankarra,
 begiak irrikatzen
 anpatuz bularra...
 Zaildu ta giarra
 da gipuzkoarra.

Eldu da oldarra,
biak jo bearra
duten trebetasuna
eta indarra.

"Aitaren" egiñaz ta,
jarririk arreta,
biak kementsu asi
dute lanketa.
Zezen-plaza betean
dabil berriketa,
orbela bezin arin
jokoan peseta...
Erne Agiñeta,
laguntzen anketa;
Luxia'k pusketa
bota bi aldeta...
—Gurea dek aurretik,
ori dek eta...!

Bat ebakitakoa,
bestearen billa,
ez du muxarrak orren
jauzi abilla.
Laguntzailleak antxe,
luzatuz makilla,
ezpal-garbitzen dute
enbor biribilla.
—Aitu dek mutilla,
kolpea dik illa...;
ekarri botilla,
zuzpertz dedilla...!
Ixkanbill artean da
irrintzi milla.

Orpoz-orpo naparra
da txalogarria;
Luxia'k arindu du
bete-aldia.

Buru-belarri zutik
da jende guzia,
otsa gaitztoa dala
eskuko burnia:
Jo adar-begia,
aizkorak nagia,
munduak antsia...;
ura zan larria...!
Etzuan nai baiño len
eten erdia.

Musua legortuaz,
izerdi-oiala,
bion begi-zuloak
neke-itzala...
Bizi-bizi jo zuten
aizken-egiñala...
Otsak igarri zuan
mami gogor zala;
aizkorak jo-ala,
saltaka ezpala...
Luxia tantala,
etzera makala;
Jaungoikoak luzaro
gorde zaitzala...!

Puska gogorrena da
mami-zuriduna,
Leitza'koak aukeraz
ekarri zuna.
Gogor dantzatugatik
altzairu astuna,
nekez erdibitu zan
egurraren muna.
Gogor ta biguna,
txandaka jarduna...
A zer jai-eguna
igaro deguna...

Gora Luxia eta
bere laguna...!

Eskuak urratu ta,
odol-izerdia...;
naparrak aizkora du
kirten-gorria.
Egurrean estugi
artu du neurria,
curretik irixteko
puskaren erdia.
Ura zan abia,
ura jo-aldia...!
ta berantegia.
Negarrez baztertu da
ezin etsia.

Gipuzkoa poza da,
Naparroan miña;
dirutzak eraman du
jokuen griña...
Martin Gartziarena,
oraindik gordiña,
iñork autsi gabeko
aizkolari fiña,
sendoan ariña,
basoan egiña,
ala ta eziña,
gaurko alegiña...
Galduagatik ba da
guzien diña.

An dabil Iturrino,
kez karen pausuan,
aterkia zintzilik
dula besuan...
Aizken-tankaz Luxi'ak
plaza irauli zuan,
enborrakin aizkora
jaurtirik nastuan;
erdi zuzenduan,
alkira da juan,
irripar musuan,
txapela buruan...
Eraman dezazula
urte askuan...!

Luxia zutitu da...;
nork eutsi pozari...?
lagunen bizkarrean
dabil igari.
Leitza'rrak eten gabe
utzi dun puskar
begi-zorrotz jendea
dabil azterkari...
Eman Luxia'ri
eta Naparra'ri,
biko aizkolari
berdingabeari
eskuak autsi arte
txalo ugari...!

1950-XII-16



**AGIRRE TXIRRINDULARIA
MUTIKOEN TXAPELDUN**

1.

Irun'go bizikletak
eman du berea:
Montero, Daboz eta
Errandonea.
Aien errotik dator
berriz landarea,
laisterka guzietan
emanaz lorea;
dakarten bidea
ezin da ohea;
"iruko" trebea
nai det goratzear:
Aguirre, Alapon da
Urtizberea.

2.

Duana eman bear
zaio duanari:
Irundarrak ba dute
gatza ugari.
Kirol geienak dira
beti or nabari,
irabaziaz ainbat
kopa eta sari...
Bata borrokari,
bestea igari,
au ostikalari,
ura pelotari...
Iñaki Agirre da
txirrindulari.

3.

Eskolan osatzen du
jator ikasketa,
liburuakin ba du
bere arreta.
Gero jolaserako
eratzen du beta,
bi kurpillen gainean
joaz ibilketa...
Kirol-eziketa
gogorra da eta,
Iñaki'ren seta
ez da herriketa:
Tresna maitagarria
du bizikleta.

4.

Alperkeriak dakar
osasun motela;
onek ez du astirik
galtzen orrela.
Saiok indartuta
jarri du zimela,
bidean bizi-bizi
sarri dabillela;
etzuan bestela
jantziko txapela
onenak bezela,
gaztetxo delat...
Kukuak ondo kanta
dezatotela...!!

5.

Neurriz ibiltzen ditu
edari ta jaki,
bere burua zaitzen
ongi bait daki.
Oñak bear dun lana
buruz erabaki,
neke-artzeko ez du
izatea aitzaki;
txaloa galanki
jaso du apalki,
saria goxaki
askotan izaki...
Mutikoen txapeldun
degu Iñaki.

6.

Irungo Napar-Biden,
lorez apaindua,
"Aterpe" goxoa du
bizilekua.
Etxe-maitea da ta
zintzoki oitua;
bizikleta goxatzen
dabilki eskua;
txirringa-sayua
egunerokua;
jana bezin lua
tajuz neurtua...
Auxen da Iñaki'ren
bizi modua.

7.

Zorionak, Iñaki
Agirre ta Muñoz;
irundarrak zurekin
pozikan dagoz...

Kopak baño dirdira
geigo dute askoz
zure jokabideak,
zuren diralakoz:
Giza-lege oroz
ekin dezu gogoz,
orregatik txaloz
ematera gatoz
zintzotasunak ongi
merezi dun poz.

8.

Probintziko taldeak
jo dute aalena,
zure txapelai kendu
naian txortena...
Billafranka, Oiartzun,
Donosti'n barrena,
Ermani'tik Zarautz'a,
Mondragoi urrena...
Ura da kemena
bota dizutena,
ala ta gorena
dezu aipamena:
Txapelketan gelditu
zera gailena.

9.

Etsai asko dituzu...
Konturatu zera,
eratxi nai dutela
zure bandera;
alzar-arturik datoz
zu errenditzera,
orpoz-orpo jarraiki
dezun ibillera:
Orain saietzera,
bideak ixtera,

bultzaka osterā,
lurra joaztera...
Zarautz'en ala galdu
dezu karrera.

10.

Zereganatu dezu,
izanik astuna,
bizikletak bear dun
trebetasuna.
Kalte izan diteke
geiegi jarduna,
neurri onak bear du
zaitu osasuna...
Begira urruna,
ba dator eguna,
txapel euskalduna
jantziko dezuna...
Irri-parrez daukazu
etorkizuna.


11.

Amalau urterekin
gaztetxo gordiña;
pedalari eragiten
ba dezu griña...

Bidaso itzaletik
ibiliz berdiña,
San Martzia'len gora
igoz aldatz miña...
Gure atsegiña...!!
egingo ba ziña
garaitu-eziña,
Eddy Merk'en diña...
Ekin zazu jo arte
goiko erpiña.

12.

Erriaren pozgarri,
deportearen on.
orrela bear zera
osatu gizon.
Dakigulako zugar
degunak itxaron
buru-biotzarekin
indarra nun dagon,
ezin gera iñon
ixilikan egon;
kantari, Aliron...!
au degu berrion:
Gipuzko'an Agirre
dala kanpeon...



IPARRAGIRRE

IXILDU-EZIÑA

Euskaldunak, astindu
txistu-danboliña...!
Iparragirre txaloz
goitu alegiña...
Ez ote da ba damok
goraltzeko diña
euskalmendiko txindor
ixildu-eziña...?
Entzun bere oyuak
eta biotz-miña,
ixildu-eziña...

Jaungoiko'ak egin du
txoria egodun,
bere askatasuna
kantari edonun...
Ala Iparragirre,
foruen txapeldun,
diarka da etxetik
urbil eta urrun,
ibilkaria beti,
ta beti euskaldun,
kantari edonun...

Negarrez alaitzen du
txoria katiola...
"Nere amak ba leki,
baitua nagola...".
Ala baña zigorrik
etzaio ajola,
geitu bearez eusko-
foruen arbola;
abesti-gríña ezin
ixildu iñola,
lotuta dagola...

Guda sutu zan eta
gogorra gaiñera,
Gernika'ren etsaiak
or datoz aurrera...
Iparragirre'k dio:
Euskaldunak gera...!
armetan eramanaz
karlisten bandera,
Foruakin il arte
Fedea zaitzera...
Euskaldunak gera...!

Lege Zarrak austea
zuten erabaki,
gure erria il bear,
batasun-aitzaki...
Iparragirre'k min du—
fededun izaki—
okerra onartuaz,
ixiltzen ez daki;
erriz-erri eupaka,
or dabil ausarki...
ixiltzen ez daki.


Elurtean txoriak
negua du gogait,
larri dabil eratzen
aterpea nunbait...
Koblari euskaldunak
ez du ixildu nai,
foruen kezkarakin
diarka da nunai,
Gernikako Arbola
arturik abesgai.
Ez du ixildu nai...

Etsaiak kendu dio
 Jainkoa'k emana,
 nortasun jatorreko
 aberri laztana...
 Or dabil arrezkero,
 arlote otxana,
 bidean erretako
 musu beltzarana
 ikus-urduri beti
 bein galdu zuana:
 Aberri laztana.

Atzerri-bidez nagi
 ara nun dijoan
 gure olerkaria
 betiko leloan;
 biotza zuzendari,
 kitarra besoa,
 orpoak odol eta
 erri-min beroan,
 ezin artu duala
 atsedetik loan.
 Ara nun dijoan...

Estalki maitea du
 bere txapel zarra,
 gudan odol dutako
 ikur forutarra.
 Ots aundiakin dio,
 laztanduz kitarra:
 "Ez dut garaitu arte
 kenduko bizarra...".
 Ala emanaz doa
 foruen diarra,
 laztanduz kitarra...

Agur, Iparragirre,
 gogoz aingerua,
 olerkiz egalari,
 Goian saritua...!
 Illezkorra da zure
 abotsaren sua...
 Orain aske zera, ta
 alaitu zerua;
 ase, Jaunagan, lengo
 ezin-ixildua:
 Gernikako arbola
 da bedeinkatua...!



ERNE, NAPARROA...!

Oiuka erranen dut:
 Erne, Naparroa...!
 Zure kaltean gose
 dabil arranoa...
 Sarritan murgil jo ta,
 darama txitoa,
 amaren egalpetik
 urrundutakoa.
 Zugan euskal-sendia
 bakantzen dijoa
 Oiuka erranen dut:
 Erne, Naparroa...!

Lapurra sartu bait zen
 euskaldun-etxera:
 Erronkari, Barranka
 eta Erribera
 arrotzez mintzo dira,
 ixilduz euskera.
 Iruña, jo irrintzi,
 zutitu osterá,
 erriari, Aitorr'en
 otsa ematera...
 Ama biziko ba da,
 zutitu osterá...!

Naparra ez da bere
 buruaren jabe;
 nausi ditu etsaiek
 arika goi ta be...
 Ausartak biotzik ez,
 indarra du lege;
 okilduak errudun,
 ixilikan daude,
 erria utzirikan

arnasarik gabe;
 geuron erruz itotzen
 arrotzaren mende.

Euskera zapuztua
 dabil mendi-garaiz,
 aize garbiak artzen,
 bearrean nunbait...
 Ez izan aldakorra,
 gizona bezin gaitz,
 oianeko txoria,
 mendietako aitz...
 Kaletarren ekaitzak
 eraso dio maiz...
 eta osasun-billa
 dabil mendi-garaiz...

Erri-legeak maite
 dituzun Iruña,
 gure kondaira zarren
 sustrai eta muña;
 asarrean basojaun,
 gaur geldi-biguña...
 Arresiak utzirik,
 zar-berritu griña,
 euskeraz zabalteko
 Napar-ikurriña...
 Ba dezakezu eta,
 zar-berritu griña...!

Entzun Orreagako
 turut euskalduna,
 aien irrintzi eta
 guda-oiartzuna...
 Ikurrin garaitzalle,
 odol gorri-duna,

Xabier-gaztelutik
eup...! egin ziguna,
kate-auslea ba zan,
mende da ituna...
Euskera-eske dago
Napar-osasuna.

Ez aztu Amayur'ko
arriak diona:

"Naparra ez izanen,
iltzea duk ona...".
Piztu bedi orduko
gudari-azkona,
ostikatuz ausardi
gabeko gizona;
lengo Iruña, ta ez
oraingo Pamplona...
"Naparra ez izanen,
iltzea duk ona...!

Aralar, euskal-mendi
guzien gailurra,
Aitorren bizi-leku,

gaztelu ta lurra,
ire pagadietan
zaunkaz duk txakurra,
ikusirik erorka
Euskera makurra...
Egiguk alkartzeko
irrintzi-agurra...
Erain Mikel Deunaren
ezpata-muturra...!

Euskera, bizi emen...!
Ez izan il-gura...!
Napararak ba du zure
senda-gai ardura...
Menditik ote zuaz
berriro zerura,
zure Jaungoikoak len
sor zindun lekura...?
Zatoz urri dan zure
famili estura...
Emen bear zaitugu;
ez izan il-gura...!



ORREAGA'KO GUDUA

Frankotarren Errege
 ospe aundi duna,
 oiñezko taldeakin
 gudari zalduna,
 igaro da errausten
 auzo euskalduna.
 Laister emango zaio
 zigor-erantzuna.

Bildurik batzarrean
 egiteko gudu,
 napar ospetsuena
 jarri dute buru,
 ta adarra joaz
 tu-ru-ru,
 tu-ru-ru,
 dabiltz inguruz
 inguru.

Gudarozte aundi da
 Karlo Magno'rena,
 iru talde bikatñiak
 osatzen duena,
 Aragoi'en izan da,
 onuntz datorrena.
 Orreaga'n zai dauka
 eriotz-eztena.

Aitonak illobari
 diotza: —Mutiko,
 Ibañeta'tik bera
 dituk ikusiko...

Zenbatu itzik
 aldiko,
 aldiko...
 Denak ez dituk

biziko...
 Bat, bi, iru, lau,
 bost, sei, zazpi, zortzi,
 bederatzi, amar,
 amaika, amabi
 milla zaldizkari...
 Amabi, amaika,
 amar, bederatzi,
 zortzi, zazpi, sei, bost,
 lau, iru, bi, bat.
 Odol-errekak zenbat...!

Karlo Maño'k galdu du
 illoba Errolan;
 gazte dotore ura
 gudal-buru zan.
 Turuka diardula,
 ezpata eskuan,
 aitzak azpiratuta,
 lerdekatu zuan.

Bi taldeak igaro ta,
 irugarrengo sailla
 sakonetik dijoala,
 asi dute batailla:
 Aitzak piririka doaz,
 burundari abaila,
 azkonari trebeakin
 ezpatari segailla.

Ezpatak
 dabilta
 zirti-zarta multzoan,
 gurdiak
 irauliz
 erreka-zuloan...

Jainkoak ipiñi zigun
mendietan arkaitza,
gaiztoari biurtzeko
ordaiñaren emaitza.
Orruka da goitik-bera,
gaillen, arri-ekaitza...
Orreaga'n iritxi da
euskaldunen garaitza.

Ezpatak
dabiltza
zirti-zarta multzoan,
gurdiak
irauliz
erreka-zuloan.

Euskalduna ez da izan
arrapatu-zalea;
eraso diotenean,
zaitzen daki berea.

Karlo Maño, artu dezu
emen uste gabea;
berandu damutu zaizu
egindako kaltea.

Ezpatak
dabiltza
zirti-zarta multzoan,
gurdiak
irauliz
erreka-zuloan.

.....
Orreaga'ko mendiak
odolez daude gorriak,
garai euskaldun gudariak.
Karlo Maño da igesi;
ez dezagula ikusi...!
Tu-ru-ru bat, tu-ru-ru bi...!
Aizkenak jo dio Errolan'i.

DON ALEJANDRO ALBERDI IGELDO'KO ORGANISTA'RI

Bere Omen-aldian abestu nizkionak
1971-IV-18

Igeldoarrak emen
pozik bildu gera,
berreun da ogeitamar
gutxi-gora-bera...
Don Alejandro'ri gaur
omen egitera.
Aspaldiko gogoak
ditzagun atera,
ederki dantzatuaz
baso ta platera.

Ordulari onek du
Longines izena,
Don Alejandro'k beti
berekin zuena;
nagiyak esnatzeko
tik-tak...! du barrena,
aurrera goazela
ayazten duena.
Jainkoak agintzean
joko du aizkena.


Mai eder ontan jarri gaituzte
apaizak ere bertsotan;
Don Balentiñ'ek zirikatuta,
ezin egongo naiz lotan...;
batak bestea txuliatuaz,
jarrai dezagun pelotan...!
Gaur bezelako pozik Igeldo'n
ez da izaten askotan.

Nagiya bear degu
denok burukatu;
orduak dijoaz ta,
ezin arapatu...
Jabei ere onek
etzion barkatu,
minutuero deika
nai zuan azpeltu.
Baiña Don Alejandro
ez du menderatu.

Au da giro ederra
gaur emen dagona...
Pozik ikusten dute
illobak aitona,
sol-fa ikasi zunak
bere maisu ona.
Txapelak bear ba du
diña dan gizona,
jantzi, Don Alejandro,
jarri-zai dagona...!

Mintza erriko bertsolariak...;
zuen biotzak zer diyo...?
Emen ixilik egon da gero
jardunak ez du baliyo.
Don Alejandrok merezi du ta,
azaldu bertso-jariyo...;
asi kantuan Martikorena,
Gorriya eta Kamiyo...!

Eliza dala, Observatorio,
Sindikatu ta Eskola...
Alperkerian lo egoteko
etzun astirik iñola.
Lan danak zintzo eramateko
izan du beti ajola,
egiñik danen serbitzari ta
itzal aundiko arbola.



GURELESA'REN DEIA

1.

Entzun, baserritarrak,
nere irrintzia...!
Gurelesa naiz, zuen
esnetegia.
Elbarri jaiio nintzan,
txit errukarria,
etorkizunik gabe,
arras eroria.
Gaur piztu-berria
nator alegia;
orra mirarria
zerutik jetxia:
Bear gendun neurriko
zuzendaria.

2.

Ez da gizon makala
gure sendakiña,
Gipuzkoa'ko txalo
guzien diña.
Etsitakoi erne
digu bizi-miña,
ez gendun ikusiko
itxuak ba giña.
Orra or egiña
gure atsegiña,
garbituz zikiña,
autsi du eziña:
Esne-tratuak duan
marisorgiña.

3.

Pentsua gora eta
beraka esnea...;

baserriak galdu zun
bizi-legea.
Gaur iriki dezagun
ikullu-atea,
ikusi Gurelesak
dion aldartea:
Bei onak jartzea,
esne-ugaltzea,
lanaren nekea
legez ordaintzea,
bear aibat ez baiña,
beintzat obea.

4.

Esneak eramán ta,
jaso ez dirua...
Orla ezin erosi
leike pentsua.
Lau aberatsen mende
zan esne-tratua;
baserritarrak du gaur
aginte osua
Gurelesakua,
dama berritua,
diruz indartua,
ta gora dijua...
Soziyo izateak
ba du kontua.

5.

Labaindu zaionean
lengo bide latza,
arin dijua gure
gurdi-ardatza.
Aldaketak du illa

piztuaren antza;
 esne-putzu ederrak
 datozte gorantza...
 Garaian kobrantza,
 kendu da zalantza,
 pobrien arantza.
 Orain esperantza,
 etorkizunarekin
 dezagun dantza.

6.

Autsi al izateko
 ainbat katramilla,
 zuzendari bikaiña
 degu Ertzilla.
 Jo Dinamarka eta
 urrena Madrill'a,
 sal-toki eta sal-gai
 obearen billa,
 arretaz dabilla,
 zuzentzen naspilla...
 Ori da mutilla...!
 balio du milla.
 Gure txalo tartean
 bizi dedilla...!

7.

Alkartasunen aurka,
 beti bear eta,
 etxez-etxe dijoa
 gezurren seta.
 Eziñean gerala,
 dabil berriketa,
 aurtan galdu dirala
 sei milloi peseta...
 Ara esneketa
 oien diru-meta;

garaian salketa
 danen ordainketa...
 Egiak azaltzen du
 bere kopeta.

8.

Gezurrak adar motza,
 baiña kaltegarri
 da ta, egiaarekin
 ezin uztarri.
 Berriketan sutuaz
 amaika belarri,
 illetako kandelak
 dizkigute jarri.
 Ez gera ez larri,
 ta bai bizigarri,
 etorkiak sarri
 emanaz alkarri...
 Gurelesa'kin daude
 milla basarri.

9.

Esneak errapetik
 dakarren zikiña,
 lan-tokian biltzen da
 likits egiña.
 Koko-bakteria da
 gaitzen eragiña,
 ta bitaminaz urri
 esne irakiña...
 Or degu makiña,
 obea eziña,
 sortzeke lurriña,
 garbitzen dakiña
 alimentu osoan
 esne gordiña.

10.

Ipar-Ameriketean
aizkenik sortua
degu esne-atsaren
tramankullua,
altzairu txuriz dana
ederki landua,
ikuskarri da bere
lanaren tajua;
azal da barrua
txukun eratuá,
daukan baliyua
ogei milloikua.
Orra egin diguten
erregalua.

11.

Esnetegiak oro
ikusiz aurrena,
au da UNICEF koak
esan dutena:
"Gurelesak du jator
bear dan kemena,
buru argi ta itzal
zuzendariena"...
On zaigu omena
internaziolena,
eta ez txarrena
eman digutena:
Esne-aitsetarako
bear dan tresna.

12.

Esne galdurik ez da
biurtzen etxera,
"kaseinak" bete du
oien galera.

Esneki au da pasta,
kristalen antzera,
botoi-lanerako ta
beste gora-bera...
Ba degu tankera
orrekin aukera.
Emendik aurrera
saiatuko gera,
galduari ongarri
danak kentzera.

13.

Esnearen emanak
artu du indarra;
orain pozikan dator
baserritarra.
Ultzama-baillaratik
jo dute adarra,
guregana dutela
zuzendu bearra...
Oiekin batzarra
ez da egin-zarra;
ordutik goiztarra
dator parra-parra,
ogei milla litrokin
gurdi naparra.

14.

Agortu-eziñeko
esne-iturria
dator osasungarri
eta garbia.
"Batido" izeneko
degun esnekiá,
dala txokolatzeko
curren kutizia,
dala marrubia,
bai koko txuria

ta bainil oria,
asez egarria,
goxo-goxo kenduko
dizu plakia

15.

Asi-berriak gera
esne gorriakin;
duan alderdi ona
bear da jakin:
Luzaro galdu gabe
irautearekin,
onuragarri baita
urri dagon tokin.
Albiste onekin
gogor degu ekin;
ba degu etekin,
obeago ezin,
esterilizatzen dan
esnearekin.


16.

Esneak igo dezan
prezio-legea,
or gabiltza egiten
eskabidea.

Ongi derizkiogu
Donosti'n saltzea
pasterizatua dan
bei-esne merkea.
Ala ta ohea
ez al da uztea
azoka librea,
sal-neurri gabea...?
Gai onak ar dezala
bere bidea.

17.

Bide onez nai ba da
iritxi urruna,
burutsuak bear du
zintzotasuna.
Taldeak indartzeko
artzen da laguna,
bakartia bizi da
beti alarguna.
Gurelesak duna
da etorkizuna...
Atozte barruna...!
Orra nai deguna:
Baserritar guztien
alkartasuna.



LURDES TXIKI'KO XOXOA

Txioka zatoz, adierazten
 il-zoriak dun larria;
 portlan-autsetan zapuztu bear
 umez beterik kabia...
 Euskal-mendiko abeslarien
 eredu zeran txoria,
 nere bidean jarrai kantari,
 alaituz egun berria.
 Lurdes Txiki'ko itzal goxoak
 luza deizula bizia...!

Uri-gizonak zapaltzen datoz
 mendiko belar goxoak;
 kabiarentzat itzala nai ta,
 txoriak ez du naikoa.
 Uxa digute Donostiya'k dun
 maixter onena, xoxoa;
 atzken-aterpe dualarik gaur
 Lurdes Txiki'ko basoa,
 askatasuna galduta laister
 kaiolan degu gaixoa.

IGELDO

Donostiarrak gera,
 izango ere bai,
 gizarte aundikoak,
 jolasean alai.
 Bizi-leku ederrak
 daudelarik nunci,
 onera datorrenak
 ez du itzuli nai.

Donosti'an igo naiz
 Igeldo-mendira,
 zeruak bere puxka
 utzi dun tokira.
 Itxas-inguru eder
 obeak nun dira...?
 Txoraturikan nago
 andikan begira.

Igeldo izeneko
 auzo ederrean
 larogei etxe dira
 baserri-legean

ipar, egutera ta
 mendi-bizkarrean.
 Ontzi baten antza du
 itxaso gainean.

Udara ta neguan
 ez bero ta ez otz;
 atsegin-baratz onek
 ba du oraintxe ots...
 Ikuska zoratzeko,
 goian Mendizorrotz...
 An ase dira gure
 begi eta biotz.


Ara euskal-mendiak,
 buru eta bizkar,
 Donosti'ri begira,
 estutuaz alkar:
 Larrun, Ayako Arri,
 Urdaburu, Adar,
 Izarraitz, Ernio ta
 Txindoki, Aralar...

Tabor-mendi ontatik
 ba da ikuspegi:
 itxas-alderdi apain,
 ibar eta egi;
 an-emen baserriak,
 euskaldun jauregi,
 lilluratzen nautela,
 agian geiegi.

Antxe ixil-mintzoan
 egin det obena:
 Igeldo dalakoan
 zerurik onena,

orra Jaungoikoa'ri
 eska diotena:
 Emen ar dezagula
 beti atsedena.

Barka, ene Jainkoa,
 nere itxumena...!
 Igeldo ba deritzat
 guztiz ederrena,
 zer ote da zeruko
 ikuspegi dena...?
 Ura ezik, au nuke
 galduaren pena.



ISIDRO ANSORENA TXISTULARIA

Urrezkoa dalarik
euskaldun kaiola,
txoriak ez du pozik
loturik dagola.
Miñ oiek arintzeko,
pozaren eskola
Ansorena'k jarri zun,
txistu zeriola.
Bai arranpola...!

Jainkoak eman dio
gizon bakoitzari
zer-egin berezi bat,
dezaken opari.
Illunak argitzeko
Euskalerrinari,
Isidro Ansorena
ziñan txistulari,
beti ari, ta ari...

Euskalmendiko txindor
txilibitaria,
erri goibelduaren
atsegingarria,
zure txirul gozoak
zuten garrantzia,
gizarte jatorrean
dago agiria,
ezin itzalia.

Pozikan egonduak
gaituzu begira
zure arnas-eskuak
zuten ibil-bira.
Eresi-mintzo aiek
ta barne-mugira
gure artean ezin
aztuko bait dira,
naiz jun urrutira.

Doñu alaiagarriaz
zelai, enparantzan,
amaika erromeri
jarri zenun dantzan.
Jainkoak ar zaitu gaur,
festa-buru-batzan,
txistularien buru
izendatu zaitzan,
zorion-baratzan.

Burua makurtuaz,
denentzat onginci,
beti paketsu ziñan,
irri-parrez, alai.
Zure ttuntun-giroa
da gaur zorion-gai,
zeruaren erdian
santu guzien jai.
Antxe beti jarrai...!



ARALAR-MENDIAN

Aralar-mendi, zu zera gure
 aberriaren gaillurra,
 udaran larre goxoa eta
 neguan txuri elurra...
 Ba da oraindik Euskalerrí'an
 jatortasunen apurra;
 pagadi zarrak artu bezate
 mentu berrien agurra.

Pake santuan artzera gatoz
 mendiko aize garbia...;
 irrintziakin poztu dezagun
 euskal-mendiko txoria...
 Aitor, ementxe gurtu zenduan
 zure Jaungoiko aundia,
 emen guk ere baitzen dizugu
 euskaldun-fede berria.

Aralar-mendi, Aralar-mendi,
 eusko gaztelu santua,
 gure aitonen kondaira zarrak
 gordetzen diran lekua,
 Euskalerría il-zorian da,
 kate gogorrez lotua,
 Mikel Aingeru'k artu dezala
 ezpata bedeinkatua...

URREZTI'KO AINGERUARI

Urrezti-gaindik erne begira
 zauden Aingeru Zaindari,
 zure oiñetan esker oneko
 erría dezu kantari:
 Goxa zaiguzu eguneroko
 ogia eta lan-sari,
 pake sentuan bizi nai degu
 zu zaitugula gidari.

Donostiya'ren auzo polita
 Ibaeta'ko txokua,
 mendi-erreka garbi zan len,
 nekazarien lekua.
 Galdu du lengo ixil-pakea,
 tankari dator maillua,
 baserriari lurra kenduaz,
 euskera galtzen dijua.

Gizartearen onerako da
 sortu dan mundu berria,
 Jaungoikoaren lege santuan
 artzen ba degu neurria.
 Gure Aingeru Zaindariakin
 bildu dezagun erría,
 euskera eta oitura zarrak
 luza dezaten bizia.

PASAIARI BEGIRA

Iru auzoko batasunean
uxa dezagun etsaia:
San Pedro eta San Juan'ekin
Antxo da beste ancia,
lanean erri zintzoa eta
jaiak ospatzen alacia.
Larri dabilta ezkondu naian
Donostia'kin Pasacia,
maitagarriak izaki oien
inguru eder ta kaia.

Itxasoaren bagetan dabilta
Blas de Lezo'ren kemenak;
itxas-gudari ayei eskerrak
gelditu ziran etenak
mundu guzia estutzen zuten
ingelesaren aienak.
Euskalerra'ko barkuak ziran,
emen egiñak geienak,
lengo Armada Invencible'ko
izen aundia zutenak.

Antziñatikan goitu zan gure
guda-ontzien izena:
Moroen aurka Guadalkibir'en
Sevilla artzeko aurrena,
ta Lepanto'ko itxas-burrukan
garaille berriz urrena.
Emendik joan zan Lafayete'kin
ontzi talderik onena,
Amerika'ren askatasuna
iritxi bear zuena.

Ontzi bikaiñak zurez eginda,
oialak zabal aizetan;
itxas-gizonen sena gidari,
arraunlariak tostetan,
Terranova'tik etorri gabe
ibiltzen ziran urtetan
arpoiarekin bale-arrantzan
eta bakaillo-lanetan.
Aien oroitzak antxe dabilta
Indiaz goiko ertzetan,

Ba zan aspaldi gure Pasacia'n
batelera-sail bikaiña,
gizonen aurka jokatu eta
irabazteko gai aiña.
Ontzia zuten Venetzia'ko
gondolak bezin apaiña;
arraun-palada dotoreakin
neskatxa talde liraiña...
Oiek goratzen etzan ixildu
errege baten mingaiña.

BASERRIA TA EUSKERA

Orra zelai-erdian
gure baserria,
euskaldunen sor-leku
maitagarria:
Orma txuriak eta
teillatu gorria,
antxe jator ezitzen
da nekazaria;
inguru guzia
soro-belardia;
oitura garbia
lege dan tokia;
euskeraren gaztelu
agurgarria.

Euskera baserritik
igesi dijua.
ama bere semeak
arrikatua...
Gure arbaso zarren
abend-aoyua,
birau zakarrik ez dun
izkuntza goxua;
amaren altzua
dan bezelakua,
errugabekua,
zeruan sortua,
Jainkoak euskaldunci
emandakua.

Ezin bizi diteke
luzaro iñola,
txerta diotelarik
arrotz-odola.
Seme zital askori
etzaio ajiola,
ikustea euskera:

illurren dagola;
zenbait ikastola
pozoi dariola...;
gure aurra nola
eziko da ola...?
Ego-dun txorientzat
orra kaiola.

Borrokan dantzatuaz
atxe dalakoa,
inkimanka jo degu
beta gaiztoa.
Bitartean or dabil
nagusi otsoa,
eusko alkartasunak
menderatzekoa;
irradi-leloa
egunerokoa,
telebisiao
ta gaiñerakoa...
Baserriak galdu du
euskal-giroa.

Norbaitek deitu dio
gure ama zana,
erderak erio-gai
lotu duana...
Eman diogularik
Judas'en laztana,
bildu gaitezen damuz
euskerarengana;
alkarri esana,
degun ar-emana
euskeratu dana...!
Ori bait da lana,
aitzakiak utzi ta,
jo bear dana.

ALELUYA


Gaurko munduak eskatzen digu
 gizarte-lege berria,
 Gernika'n gure aitonen aitak
 sortu zun Demokrazia...
 Lege au zenbait laterrietan
 dabil gezurrez jantzia;
 andikan dator aize zikiña
 usteltzen giro garbia...
 Gezur pobreak ez du jantziko
 aberatsa dan erria...

Aleluyakin zutitu gera...;
 gau degu Pazko-eguna,
 Jesus garaille piztu dalako
 alai ospatzen deguna.
 Kristo, lenbaitlen argi zaiguzu
 Euskalerriko illuna;
 lortu gizonen errespetuak
 bear dun askatasuna,
 bere nortasun osoarekin
 bizi dedin euskalduna.

MUSITU

Arabian zear goazelarik,
 begiak zaizkit larritu;
 biotz-erleak ezti-gai billa
 emen nai luke gelditu...
 Entzia-mendi oietan nintzan
 artzai ni asi-berritu;

larrean goxo nitun ardiak
 gudak zizkidan urritu...
 Amaika leku ezin-obeak
 euskal-mendiak ba ditu,
 oien artean txikia baiña,
 zoragarri da Musitu.



BAI TA EZ...

Griñak argia bear du lagun,
adimenaren mintz ona,
eztabaidakin osatzen bait da
itzala duan gizona.
Gauza txuria izan diteke,

norbaitek beltza diona.
Gezur-egiak nastu ba dira,
billa dezagun sakona;
zure ustea borrokatzen det,
errespetatuz pertsona.

KIRTENKERIA

Ezjakin batek arro,
adarra jo nairik,
ots aundiakin zion:
—Ez da Jainkorik...!
Besteak erantzun:
—Aizak, bai al dakik,
nork egin zun lenengo

oltoa ta nundik...?
—Sortu arrautzetik...
—Arrautza zertatik...?
—Ba... ba... ba... ollotik...
Paragarigorik...
Inguruak algaraz
daude geroztik.



ALTXERRI'KO AITZULOA TA OTEIZA

1.

Altxerri'ko zuloan
bizi zan gizona,
pizti-larruz jantzia,
gerrian azkona...
Kezkatsua zala ta,
ertilari ona,
da bere marrazkien
mintzoak diona.

3.

Aitor'en irizpide
neolitikoa
xurgatu du aztertuz
mendi-zuloa;
oraingo drogatuen
kutsu gabekoa,
ez antz-irudi, baizik
asmatutakoa,
iritzi trinkoa
da orren gaurkoa,
dakarren erroa
metafisikoa,
astinduaz gezurren
erti-lanbroa.

5.

Basatiak ez bait zun
ezeren eskola,
arri-landuzko tresnak
zituan antola;
marrazkiaren tajuz
barne-zeriola,
basa-piztien eiza
zitzaion ajiola.

2.

Len-gizonak maite zun
Altxerri'ko leiza,
ura zun pentsa-leku,
etxe ta geriza;
an somatzen zituan
arrantza ta eiza...
Aren errotik dator
bultzaka Oteiza.

4.

Bultzaka datorkigu
Aitor'en maistarra,
erti-gau illunean
piztuaz garra;
mintzo berriarrekin
mezulari zarra,
dardari aundi batez
jo digu adarra;
asarrean parra,
esan-nai azkarra,
enbata zakarra
da orren oldarra...
Guzia du Oteizak
oriotarra.

6.


Oteiza'ren irudi
abstraktoz egiña
musin ziotelarik,
da gaur atsegiña...
Mito garztoen aurka
baita eragiña
irudigille onen
bultzada ta grifiña.

BALEO TA BALITZ...

Diru-goseak eta
 aundinaiak dio:
 —Baleo nai-añako
 etorki-jario...;
 itxas-kolko guzia
 ba'litz arrolio...!
 Naikeri onek dakar
 goibel-ondorio,
 gure amets urdiñak
 ez bait du balio.

Bizki-antziak ziran
 Baleo ta Balitz,
 ezin-ase alako
 diru-zale aunitz...
 Elburuaren mugan,
 biak itz eta pitz,
 ziran garaian, ziplo...!
 egin zuten irrist.
 Oien aztarrenetan
 alperrikan gabiltz.

Baleo'ren izena
 nik aitatu ala,
 arzoak ematen dit
 erantzun tamala:
 Orio'ko ibaian
 ito egin zala,
 oillo eder-ederra
 kolkoan zuala.
 Balitz, aren penetan,
 il zan bereala.



**ELIZ BATEN ZAR-BERRITZEA
AUZO-LANEAN**

Igeldo'ko San Pedro
elizak ba ditu,
bere zarrean, uste
gabeko meritu;
iriki zaizkanean
zenbait zirrikitu,
romaniko lerroak
zaizkio arkitu.

Leio, arku ta koxkak,
azpiak eta gain
erti-lana bait dute,
aintzat artzeko lain.
Ezkutuko pitxiak
azalduaz orain,
jarri ditzagun berriz,
zar-berrituz, apain.

Aldare aldetikam
bi leio itxuak,
romanikoz aspaldi
ederki landuak,
estaliz egon dira
luzaro galduak.
Ederrik ez du galtzen
musu-garbituak.

Orain zortzireun urte,
gutxi-gora-bera,
ez-jakiñak al ziran,
traketsak...? Bai zera...!
Argin-maixuak baizik,
jakintsu gaiñera;
arri zarrak aztertuz,
konturatu gera.

Gogozko lanak ez du
sortzen inki-manka,
leiaz alkartu baizik
gerri, esku, anka...
Batean maillua ta
bestean palanka
dantzatuz, ari gera
denok tinki-tanka...!

Laguntza eskatu, ta
etzaigu ez uka;
orra zenbat gabiltzan
elizan mailluka...
Jator egin litezke
lanak musu-truka.
Poliki baiña ondo
dezagula buka.



TXAKURRA ZAUNKAZ

Gernika'tik ari da
 zaunkari txakurra,
 nabaitu dualarik
 otso lapurra.
 Gorri-jendeak artuz
 euskaldun ikurra,
 gure artean sartu
 nai dute muturra.
 Dioten agurra
 dana da gezurra
 ta joko maltzurra,
 galtzeko ziurra
 Lege-Zarren Aritzak
 duan ezkurra.

Euskalerrak nai du
 beingoz askatzea,
 Fuero ta Lege Zarrak
 duten katea.
 Ur-ttamttoak ez bait du
 jarriko aseca,
 aspalditik dakarren
 egarri-goseca.
 Fuero'en legea
 ez da mesedea,
 baizik aitortzea
 eta berritza,
 erriak berea dun
 eskubideca.

Azpi-lanecan au da
 etsaiak nai duna:
 Sakabanatu gure
 gizatasuna.
 Alkar-joaz gabiltza,
 galdurik sentzuna,
 illurren degularik
 aberri kuttuna.
 Erri-osasuna
 da bear deguna,
 argituz illuna,
 bildu euskalduna
 indar-berrituko dun
 alkartasuna.



ETUME

Ara mendi-egalean
zenbat txori, zenbat ume...
Bizi-leku eder ori
Donostia'k du Etume.


Mimosak loretan da
txoriak kantari,
aurtxoak plisti-plasta
putzuan igari...;
aize garbia
dagon tokia,
eguzki dirdari...
Pakearen jar-leku,
zorian-atari...

Enbata geratzeko,
du baso-itzala,
soso-birigarroak
maixter dituala...

Gau-orduetan
piñudietan
ontzaren oyua,
baretuaz munduko
giza-ixtillua...

Ederrean norbaitek
bear du nagusi...
Etume'tik kanpora,
guziak itxusi...
Zeruak ere
bear du bere
zorian da guzi,
zulotxo bat Etume
dezagun ikusi...

Ara mendi-egalean
zenbat txori, zenbat ume...
Bizi-leku eder ori
Donostia'k du Etume.



KARRANTZA'KO IZPIAK

I. Pasiegoa

Pasiegoa da gizon
pobre-aberatsa;
saltzen dabil soiñeko,
ari ta orratza...
Urri ta otza janez,
bizimodu latza,
bainia diru-altxorra
lan orretan datza.

Bixkiak jaito ziran
auzoko etxean.
Aita-bitxia bear
bataio-legean,
eta ospe aundiaz
dirala pontean,
Pasiegoak artu
ditu besartean.

Etxez-etxe darama
lepoan fardela,
zulo denetan sartuz
txingurri bezela.
Bere bizigarria
diru-otsa dela,
ez du inoiz uztuko
bete dun sakela.

Kristautu diranean
bici laztan bana
emanda gero, min du
artu duan lana.
Eska diotelako
legez bear dana,
galesti dala, dio,
apaizen sotana.

Orma-zulo batean
sartu du dirua,
inork ikusi gabe,
aztertuz lekua.
Aren usaian dabil
emazte gaixua,
legundu nai ta ezin
koipetan eskua.

Ez da gogo onez joango
elizara biar;
bi ume jasotzera
berriz zeñek bial..?
Ordaintzaren miñez du
geroztikan diar:
"Gaspara ta Gabina
oitasei errial"..!!



II. Apaiza ta Sakristaua

Apaiz berria pozik
 dator irri-parrez,
 buruz jantzia baiña
 ekintza bearrez.
 Aldeakueban dena
 egingo du errez,
 Pedro sakristaua ta
 maixu ona danez,
 oituren neurri ona emanez.

Errira etorri da
 biaramonean
 bataio santua du
 meza ondorean.
 Krisma-ontzietatik
 argi bereiztean,
 Aizken-Igurtziena
 jarri du pontean.
 Sakristaua farrez bitartean.

—Aizken Igurtzia guk
 aingeruaci jarri..?
 Olio santu ori
 ez beza ekarri..!
 Apaiz Jaunak orduan
 esan dio larri:
 —Bearrik ez du baiña,
 beti da ongarri.
 Esku eman zioten alkarri.

III. Epai zorrotza

Ba zan Aldeakueba'n
 artzai beltzarana,
 itzal aundiko gizon
 fedeari emana,
 erabakiak artzen
 ongi zekiana;
 buruz jantzia bait zan
 Pedro Sakristana.

Eztabaidan zirala
 pakea ta gerrak,
 jaso nituan ango
 erantzun ederrak:
 Nagusiak errudun..?
 Aimbatsu alperrak..?
 Nundikan datoz gure
 munduan okerrak..?

Pedrok esan dezala
 berak dakiena.
 —Nik eman bear ba det
 iritzi aizkena,
 orra gaurko munduan
 ikusten detena:
 Gizonak eta andreak
 jende gaiztoena.

IV. Apaiz gorriak

Karrantza'n egin zuten
bilbotarrak jata;
gureztat gaiztoa zan,
aizentzat alaia.
Aberatsak ar zezan
soil-soillean maia,
kapitalistak zuten
astindua baia.

Zerriaren antzera
asetu ta gero,
edari biziakin
jarri ziran bero.
Aien arundikeriak,
oju ta itz-ero
beartsuak entzun da,
min du arrezkero.

Enparantzan jolasa
bear zala, eta
egin zuten neskatxen
iztar-neurketa;
gero txekorrarekin
irri-zezenketa,
labanakin zulatuz
bizkar da kopeta.

Musika-lekutikan
egiñaz diarra,
goraipatu ziguten
diruaren farra,
España berria ta
Franco'ren indarra.
Aien zoramena ta
gailendu bearra..!!

Igandean auzoko
eliz guzietan
sermoiak egin ziran
oien salaketan,
orri bat irakurriz,
ederra benetan,
argi-bideak artuz
egiaren setan.

Lore onak bear du
lurr-ontzi ederra;
loikeriak aski du
ikullu-bazterra.
Uzte ortan etorri
al zaigu akerra..?
Gizabidez zuzendu
dezagun okerra.

Karrantza'tar maiteak,
ez arren okildu,
izen onaren alde
bear degu bildu;
gauz oiek ikusita
zergatik ixildu..?
Ala balitz pobrea
aberatsak il du.

Erri-agintariak
asarretu ziran.
—Apaiz gorri-gorriak
ditugula jiran,
ezin egongo gera
mutu, ikusmiran.
Oientzat atzerririk
ez al da lurbiran..?

V. "Sermoi politikoa"


Guda-suak itzaliz
 giñadela keetan,
 erriko jaiak ziran
 San Bartolometan.
 Frankotarren sarrera
 ospatzea bertan,
 autu zuten erriko
 erabakietan.

Mezaren itzaldi-gai
 eta zergatia
 izandu zan erriko
 Santu Zaindaria;
 denok bear degula
 ekite garbia,
 sendatzeko elkarren
 biotz elbarria.

Anai-arteko guda
 odoldu genduan;
 ez guaz esatera
 arrazoi nork duan.
 Bi aldetako illak
 dauzkagu goguan,
 Jainkoak artu ditzan
 lenbaitlen zeruan.

Meza-ostean denak
 atarian dagoz;
 Alkate Jaunak ez du
 sermoi ori gogoz:
 —Estos curas son rojos,
 que sí, mecauen sos..!
 No nombran al Caudillo
 y a España ni pa Dios..!





Lagun-Artekoak



EZTAIAK BIRIATU'N

(1955-I-31)

Euskalmendiko txindor,
abeslariekin
txiruliru alai ta
goxoenarekin...!
Albistari batek gaur
esanda det jakin,
eztaietan degula
gure Joxe Joakin.

Bidaso-ertzearen
goian Biriatu...
Aberri-miñak ba du
nundik begiratu...
Bizkai-Gipuzkoar bi,
bein erbestera,
ta askatasun-egetan
antxe dira batu.

Bizkaitar andereño,
jator dan bezela,
Urkiola'n pizturik
daukazu kandela...
Begiz jo zenduana
ez bait da motela,
zuzen eramateko
ezkontza-batela.

Euskalerrria'k ondo
gogoan zaitu, bai,
balkoitik zintzilika
egatu ziñanai...
Armaz egonagatik
eiztariak ernai,
katagorriak iges...
Alperrik daude zai.

Erbestean, txit urrun
biziko zerate,
etsaien gorrotoak
amor eman arte.
Ezin ba-degu lortu
pakezko txolarte,
zeruko aberrian
dezagun alkarte...!

Ondo goxa zazute
bodako pastela;
txanpaña-botillari
askatu txapela,
aparrakin bustiaz
ikurrin-mantela.
Jator bizi, ta laister
itzul zaitzela...!!



JAKA'RI ESKUTITZA

Jakakortejarena,
 ire albistea
 zekark "Matxin-Burdiñ'ek"
 lorez betea.
 Biotzean daramak
 Euskera maitea;
 beste bein josi diok
 jantzi dotorea.
 Deken jakitea,
 goi-argiz asean,
 ainbat adorea
 ez dek arlotea.
 Dantza bear dek ire
 luma trebea.

Gure ikastoletan,
 aurrak txalotua,
 pozik zebillek ire
 "Moro Katua".
 Lengo iturri ura
 ez dek agortua,
 bertsolari-legean

ugalduz puntua;
 azal da barrua,
 ongi tajutua;
 euskal-eredua,
 zarrez berritua,
 gaurko errezkeriak
 zokoratua.

Emen ari dek etsai
 madarikatua,
 jo Lege-Zarrak eta
 Fede Santua...
 Urrundu itzanetik,
 aberri-mindua,
 sube gorriak ez dik
 erantsi mixtura;
 biotzeko sua
 daramak piztua,
 oraindik gartsua,
 bai alajainkua...!
 Txomin, lengo lepotik
 daukakat burua.



MARIANO AZURTZA'RI

Zenbateko eziña,
 cinbesteko sari
 Jaunak ematen dio
 zintzoa danari.
 Mariano bizi zan
 miñetan igari,
 Eriotza eskatuz
 zeruko Aitari...
 Neke oiek ba dute
 ordaña ugari...

Osasunikan gabe
 jaito zan mutilla,
 munduan ibiltzeko
 bizirikan illa.
 Askotan egindako
 erregu ixilla
 Jainkoak entzun, eta
 datorkio billa.
 Zeru ederrenian
 sendatu dedilla.

ESKUDERO

Lege Zarren egarri
 da Euskalerria,
 minbiziakin larri
 gaiztotzen asia.
 Billa deiogun, bear
 dun sendalaria,
 geldituz ari dun
 odol-ixuria.

Ekintzak mugatzen du
 biotzak nai duna,
 gure oker-zuzenak
 ta gizatasuna.
 Norkerietan sarri
 joan zaigu eguna,
 txalotu bearrean
 aldiko zalduna.

Madrid'en ordezkari
 zaitugun ezkeru,
 jator mintzatu zera,
 zainduz aldiero,
 giza-eskubide ta
 errienak bero.
 Bejondeizula eta
 jarrai, Eskudero...!

AITA ONAINDIA'RI

Illunpetan zalarik
 euskal elertia,
 txit errukarria,
 Bizkaï'tik piztu zion
 norbaitek argia.
 Orra gizon apala,
 itzalez aundia;
 maitez deitzen diogu:
 Aita Onaindia.

Euskal-baratzan dabil
 batetik bestera,
 lorezai antzera,
 an xurgatu ta emen
 utsak betetzera...
 Nekeagatik ez da
 gelditu atzera;
 Onaindia'tar Xanti'k
 maite du Euskera...

Ikusi ez duenak
 ari dun izardi,
 ez dezake adi,
 Aita Xanti'k zenbatsu
 maite dun Euzkadi,
 Aitor'en izkuntza ta
 gizarte-izadi...
 Urte askuan gure
 Aita izan bedi...!

Euskal-errekan ase
 nairik egarria,
 bildu da larria
 Zornotza'ko Larre'an
 idatz-lagundia,
 aro batez kantari
 biotz-oparia:
 Agur, agurgarrien
 Aita Onaindia...!

MEZA BERRIAK1935 - **ZILLAR-EZTAI** - 1960

Urteen etorrian
 mesede ugari
 Jainkoak eman dio
 nigan apaizari:
 Beatzi milla ta berreun
 aldare-opari;
 zenbat pekatu autsi,
 ta zenbat gurari

sutan korapillatu
 gizonen griñari;
 zenbat gau argituak
 biotz illunari...
 Esker-egun onetan,
 Te Deum kantari,
 zuen otoitzarekin
 lagun nereari...!

ZORIONAK...

Gaurtik aiz, Iraola,
 Ernani'ko artzai;
 barruti ori daukak
 txalotzeko zai...
 Gipuzkoa'ko lagun
 Araba ta Bizkai
 berri onekin denok

jarri gaituk alai.
 Izan ere zer-nai
 guzirako dek gai.
 Beti gorakoei
 esan akiok, bai...!
 Asko dezakek eta
 lanean jarrai...!

BEJONDEIZULA...!

Lasarte'ko
 Idigoras'tar Joxe Manuel-en
 Omen-aldirako egiña
 1965-II-28

Lagun urkoa maitatzea da
 kristau onaren dotriña;
 obe genduke bide ortatik
 aleginduko ba giña...
 Borondatea duan gizonak
 menderatzen du eziña.
 Ori da gure Praktikanteak
 bere bizian egiña.

Lantokian bat zauritu dala...
 norbaiti entzun estula...
 sendagaiakin an joango ziñan,
 bein garbi eta bein zula,
 gau t'egun erne, kale-baserri,
 etziñan geldi sekula.
 Erri-biotzak eskartzen zaitu,
 esanaz: Bejondeizula...!

Odol gorritan algodoi txuriz
 goxatu dezu garratza...
 gaixoarentzat begi ona ta
 trebe izanik biatza...
 Orain erriak ematen dizun
 esker guzia or datza:
 Zu guri miña zulatzen eta,
 guk maite zure orratza...

Opor-egunak artuagatik,
 zeñek lotu zu txokuan...?
 Beti zerekin daramazkitzu
 sendagai-tresnak eskuan.
 Berezko griña daukazu nunbait,
 ta gero beste munduan
 lan-billa nora jo bear dezu...?
 Gaixorik ez da zeruan.

Esker-tzarreko itxas-erdian
orra maitasun-ugarte;
leyaltasunen mintza dutenak
emen dute gaur alkarte.

Zu danentzako izan zera ta,
guztiak txalo dakarte;
esker oneko auzoak dira
Oriya eta Lasarte.

EXERI ZAITE..!


Luis Artetxe,
Tolosa'ko Sakristauei
1971-VI-24

Tolosarrentzat maitagarri da
eliza Santa Maria,
zuretikako uzta ederrak
bildu ditugun tokia.
Arazo bikain onek bete du
Luis Artetxe-ren bizia.
Artu beza gaur erriagandik
esker onaren saria...

Zuzentasuna maite duanak
ezin etsi du zigorra;
giza-legear burrukatuaz
ezi da kristau jatorra...
Justizi billa egin zenduan
aldi luzean oporra,
apaiz-buruak egin zun arte
esku-emanaz aitorra.

Sanjuanetako kanpai-otsak du
alaitasunen kemena,
zuk emandako biribilketak
aurtengo du aizkena.
Batean miñez, bestean alai,
mezara deika urrena...;
kanpaiak beti gogora dakar
Luis Artetxe-ren izena.

Eliz-liburu damen orriak
ba dute zure lerroa;
apaizarentzat izandu zera
aldare-morroizintzoa.
Zeruak sarri artu du zure
intsentsu-lurrin gozoa;
ara joatean, izan guretzat
gaur zeran bezelakoa...



XABIER PEÑA'RI

Gizatasuna eta
 Euskera maitea
 da Xabier Peña'ren
 bizi-legea.
 Tolosa'ko baratzen
 xurgatuz lorea,
 Bilbao'n ezti goxo
 darion erlea.
 Bere lambidea
 ezin da ebea,
 arretaz betea
 ta sariz merkea;
 txalogarriena ta
 txalo gabea...

Agur, Xabier Peña,
 makurtu zaitea,
 onartuaz lagunen
 borondatea.
 Ez da on geiegizko
 apal izatea;
 esker-onak bear du
 aitor mesedea.
 Zure naigabea
 da guk aitatzear
 dezun adorea,
 euskerazalea.
 Barka nere txalook,
 adiskidea...!

BASARRI

Aralar-mendi degu
 euskaldun oiñarri,
 Aitor'ek eraiki zun
 txapeldun-agarri.
 Nor an sarigarri...?
 Gaur bat ipintzekotan,
 joko det aldarri:
 Txapel aundiarekin
 neretzat "Basarri",
 guztiz txalogarri.

Bizi-atsa emanaz
 galdu zutenari,
 Euskalerra osoan
 jarri du kantari
 ainbat bertsolari...

Ezin ukatu zaio
 berea dun sari,
 euskal-baratz ederra
 loratu dunari,
 olerki-mintzari...

Txori onek, kantari,
 euskera du lege;
 moko-lumak dantzatzuz,
 ari zaigu trebe,
 iñoiz ixiltzeke.
 Izan ditualarik
 etsaiak goi ta be,
 euskeraren txapelak
 "Basarri" du jabe,
 zalantzarik gabe.

USURBIL'EN GERTATUA..?

Usurbil'ko erriak
elizan gordea,
ba omen zan aspaldi
gurutz dotorea;
Kristo billutsik, baiña
pitxiar betea;
esku-oiñetan dir-dir
urrezko iltzea.

Ango giroa noski,
fedean bilduki,
otoitza, kandela ta
mindunen erruki...
—Ezin leike Jainkoa
orrelan eduki,
baiña pekatu da ta,
etzazula uki..!

Andre batek izaki
kontzientzi-miña,
gau batean sartuta
aska zion oiña.
Sakristauak nabaituz,
diotza: —Sorgiña..!
Zer den or arramazka,
gau-txori zikiña..!

—Aingeru Santua naiz,
lapur-itxuretan,
Kristoren oiñazeak
nabil azterketan...
—Tiro-danba onekin
ar zan ba or bertan
Espiritu Santua
perdigoi-aletan..!

An erori zan illik
serore gaixua,
eskuetan zeukala
errosariyua.
Erantzi zuten gurutz
bitxiz apaindua;
geroztik lapurrik ez;
il zan pekatua.

Gaur egun gurutzean,
kristonak artua,
Jesus daukagularik,
dantzan ingurua.
Len itxuak zirala,
gaur lotsa galdua,
oker-bidetik dabil
erorka mundua.

Denak ezingo dute
gertaldi au jasan.
Beraz esango diet:
—Au egia ba zan,
ongi sar dezatela
euren kalabazan,
eta irten dedilla
Usurbil'ko plazan.

PAKO MUÑOA'REN BIXIGUA

Munduak eman digu
amaika zartako,
gero ere ortatik
etzaigu faltako.
Oraingoan orratik,
gabonetarako,
bixigu ederrakin
etorri da Pako.


Arrai biziya eta
kiloz iya iru,
ez gendun aspaldi jan
olako bixigu.
Gabon-afari onek
poza eman digu;
denoren esker ona
bijoia testigu.


Odol-beroa eta
biotz aundikoa,
beti laguntzeko zai
da Pako Muñoa.
Bizkarretik elduaz
jartzen du besoa,
besteakin dantzatzu
patrika-zuloa.

"Nekauen la puñeta"
ari dun jarduna
ez da piper miña ez,
baizik gozo duna,
gabonetan ekarriz
falta zitzaiguna.
Olentzaro bera da.
etorri zaiguna.

Nik Oriyo nai eta
zuk berriz San Juan,
alkarren etsai gera
estropako orduan.
Korapilloak zenbat
aldarte dituan..!
Pozik murgildu zaitut
kalizen barruan.

Estambur'en jan gendun
txitxarro-berdela
turkoentzat diote
goxoena dela.
Pasaiko bixigurik
ez dute, bestela
lertuko bait litzake
Sultan'en sabela.





A R K I B I D E A

Loidi'tar Paben (egillea)		Eutsi...!	58
Eskeintza	5	Negar-osifia	59
Aurreitz (Lekuona zaarra)	7	Galdera biurria	59
		Argi ibili... ..	60
		Txiruliruliru	60
ORIOTARRAK	9	Saminlorduan	61
Orio'ko umezurtza	11	Agur Maxin	61
Delako erri au	17	Arrillaga'tar Loren'i	62
Itxas-burruka	18	Odol-giroa	62
Arrantza	19	Ertzilla-Areso, ezkontzan	63
Bale-arrantza	21	Ezkontza Ereñozu'n	64
Arraunlariak	23	Eztaiak Elizondo'n	64
Patroi aipatuenak	27	Don Julian Rezola	65
Estropada	29		
Arraunketa	32	ELIZA	67
Ik neri, nik iri	33	Nere meza-berrian	69
1964	35	Zurrunbilloan oiuka... ..	69
Bi aldetako seta gaiztoaren aurka.	37	Bateltxoak kulunkaz	69
1970	38	Meza-berria Igaldo'n	70
Arraun-doiñuak	40	Josetxo aldarean	71
Erramun itxua	42	Añorga'n Meza-berri	73
Orio'ko Motxa	43	Pazko-Eguna	74
Orio, "Ijito-erria"	44	Ekin!	74
Orio'ko San Martiñ-etan	45	Maita bearrean	75
Orio'ko Zaindari zantuei	46	Hipona'ko arranoa	75
		Il-zorian	76
LIRIKA-ETA	49	San Isidro'ri	76
		Aldare-mintzoa	77
Agur, Meitere	51	Mille esker, Iokin	77
Ama	52	ApaiZen amari	78
Au lana	53	Gaurko apaizari	79
Utikan pobrez...!	54	Zigor-lana apaizari	80
Biozkada	55	Ri gau mikrobus batean	83
Martin Lekuona	55	Sortzez garbiari	84
Josetxo ere il...!	56	Tyori lepo-garria	85
Telesforo Galparsoro	57	Mixioak Igeldo'n	86

Luzarbe gogo-jardunetan	88	Baita ez... ..	125
Larrea'ko Amabirjiña koroitzean.	89	Kirtenkeria	125
Erramun Balerdi ta lagunak be- jondeicuela...!	90	Altxerri'ko aitzuloa ta Oteiza ...	126
Xalbador'en argi-ola	91	Baleo ta balitz	127
		Eliz baten zar-berritzea auzo-la- nean	128
ERRIZALEAK	93	Txakurra zaunkaz	129
Txapela	95	Etume	130
Pelota-jokoa	96	Karrantza'ko Izpiak. I-II-III-IV- V	131
Pelota. Euskaldun jolasa	98		
Aizkolariak	101		
Agirre txirrindularia, mutikoen txapeldun	104	LAGUN-ARTEKOAK	135
Iparragirre. Ixildu-exiña	107	Eztaiak Biriatu'n	137
Erne, Naparroat	109	Jaka'ri eskutitza	138
Orrega'ko gudua	111	Mariano Azurtza'ri	139
Don Alejandro Alberdi Igeldo' ko organiztari	112	Eskudero	139
Gurelesa'ren deia	114	Aita Onaindia'ri	140
Lurdes-txiki'ko xoxoa	118	1935-Meza berriak zillar-eztai- 1960	140
Isidro Ansorena txistularia ...	120	Zorionak	141
Aralar-mendian	121	Bejondeizula...!	141
Urreizti'ko aingeruari	121	Exerizaite...!	142
Pasa'ri begira	122	Xabier Pañe'ri	143
Baserria ta euskera	123	Basarri	143
Aleluya	124	Usurbil'en gertatua...?	144
Musitu	124	Pako Muñoa'ren bixigua	145

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.
- 5.º KARDABERAZ - 3.
- 6.º AMEZKETA'KO PERNANDO
(A. Albisu).
- 7.º KARDABERAZ - 4
- 8.º PAKEAREN ERREGIÑA - MEZA
(J. Pildain).
- 9.º 20 IPUI ETA ANTZERKITXO BAT
(A. Albisu Ayerdi).

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan
(ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta.
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-
deentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) li-
buruak artzera beartzen dituzte beuren
buruak.

Bazkide naiz arpidedum egiteko nora jo?
Leku auetara :

Kardaberaz Bazkuna :

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus

Técnicas de Difusión.

San Francisco, 1.

Apdo. 83.

